

tti pi-ttapa

273. zenbakia • 2000ko martxoak 9 • XX. urtea

Nafarroa, Euskal Herria eta Munduan nagusitu dira Lesakako tiralariak

Inoiz egin duen denboraldirik onena burutu berri du Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak: Nafarroan joan zeuden lau txapeletatik hiru jantzi zituen (bertzea Aresorentzat izan zen); Euskal Herriko txapelketan ere bertze horrenbertze egin zuten, lau txapeletatik hiru eraman. Denboraldia borobiltzeko, Holandako Slagharen herrian jokaturako Munduko txapelketatik urrez-

ko domina bat ekarzteza zuten helburu eta klub arteko txapelketan bi lortu zituzten pisu tikiene-tan (560 kilotan Aresok zilarrezkoa eskuratu zuten). Nazioarteko txapelketatik ere ez ziren esku hutsik bueltatu. 560 kilotan zilarrezko domina lortu zuten, Ingalaterrako taldearen ondotik eta 640 kilotan (Areso, Abadiño eta Torrekolandako

Holandako Munduko sokatira txapelketatik lau domina ekarri zituen Beti Gazte: klub artekoan urrezko bi eta nazioartekoan zilarrezko eta brontzezko bana.

tiralari batzuk zortzikotean sartuta) brontzezko domina erdietsi zuten. Marka ederra egin dute lesakarrek!

28



3 Elkarrizketa:
Mari ATXA

Eguzkilore elkarteko kide honek emakume talde horren berri eman digu. Elizondon elkartzen dira astero 42 lagun, gisa guzietako ikastaroetan parte hartzeko. Orain etxeko eta autoko konponketa tikiak egiten ikasten ari dira, bertze gauzen artean.

4 Erreportaia:
Agotak: Garai batean berride baztertuak

Nor ziren eta nondik heldu ziren inork garbi azaldu ez badu ere, sei mendetan bazterketa sufritu behar izan zuten agotek. Arizkunen Bozate auzoan bizi ziren eta elizan sartzeko ate berezia izateaz gain, gibeledko aulkietan jarri behar zuten. Halere, ofiziale onenak izatera ailegatu ziren.



Argazkia: Jagoba Manterola

ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA



- ➔ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➔ Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➔ 10 urteko esperientzia
- ➔ Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hobereena



**GIZAKIAK BETIDANIK JAKIN
DU SILOTITEREKIN
BILTZEA DELA
KONTSERBATZEKO
MODURIK
HOBERENA**



AROZ - BERRI, S.A.

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • Tel: 948581021 - 948580258 • Fax: 948452103 • 31730 IRURITA



**Almaco
Baztan**

**ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU
MATERIALAK**

© 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO

↓ Zeramikak



↓ Tximeneak



↓ Velux-ak



↓ Erremintak



DATUAK.....

- ❖ Almandozen sortua bada ere azken 20 urteotan Elizondon bizi da Mari.
- ❖ 47 urte ditu emakume honek, baina Eguzkilore elkartearen adin guzietakoak elkartzen direlako, hasi 18 urtetik eta 55 urtetaraino.
- ❖ Lehenbizian 10 emakume elkartzen ziren, baina gaur egun 42 juntatzen dira astero. Halere, gizonak ere onartzen omen dituzte taldean.
- ❖ Gisa guzietako ikastaroak antolatu dituzte orain arte, eta hemendik aitzin ere bertze hainbat egiteko asmoa dute: udaberrian, adibidez, sendabelarrak eta barneko edertasunari buruzkoak.

✍ **Mari ATXA** *Eguzkilore elkarteko kidea*

“Etxeko arazoak atzetzeko hasi ginen juntatzen”

NOIZ SORTU ZENUTEN EGUZKILORE ELKARTEA?

Duela hiru urtetik honat dago martxan, baina izena orain berriki paratu diogu. Elkarreak animaleko arrakasta izandu du. Hasieran 10 lagun ginen bakarrik, baina gero eta jende gehiago juntatzen hasi ginen eta orain 42 lagun gaude. Elizondokoak gara gehienak, baina Zugarramurdi eta Lekarozko bakarren bat ere badago.

LEHENDABIZIAN LAGUNTALDE BEZALA HASI ZINETEN JUNTATZEN, EZTA?

Bai, hasieran norberaren babeserako talde bezala sortu zen eta Osasun Etxean biltzen ginen. Taldea etxeko arazoak atzetzeko hasi zen juntatzen. Auniz arazo daude, eta horiek alde batera uzteko juntatzen ginen. Batzuk bertzei lagundu eta autoestima lantzea da garrantzitsua, elkarrekin erlajatu, barrenak hustu eta elkarrekin solas egitea.

GERO TALDEA PIXKAN-PIXKAN HANDITZEN HASI ZEN...

Bai, eta jende gehiago apuntatu zenean Arizkunenean eman zituzten sala bat. Han denetik egiten dugu, arrasketa landu, tai-chi, yoga, autoestima...

NOIZ IKUSI ZENUTEN TALDEARI IZENA JARTZE-

► *“Iturgintzari buruz zerbait ikasten dugu, eta autoko konponketa ttikiak ere bai: zirrika aldatu, olio eta ura begiratu... gauza nahiko sinpleak baino beharrezko direnak.”*



«Elkarrekin solas egin, erlajatu, eta barrenak hustutzea da garrantzitsua».

KO BEHARRA?

Gan den irailan janari osasuntsuei buruzko ikastaro bat egin genuen, eta Udaletxeak deitu zuen nahiz eta guk antolatu. Gauza gehiago antolatzeko taldeari izena paratu eta estatutuak bete beharra ikusi genuen. Orduan, urte hasieran pentsatu genuen taldearen izena. Bazen izen pila bat auke-

ratzeko, eta Eguzkilore oso polita iduritu zitzaigun.

ZER GISAKO IKASTAROK ANTOLATZEN DITUZUE?

Orain, adibidez, dantza afroamerikarra lantzen ari gara Venezuelako irakasle batekin. Kuadrila franko polita juntatzen gara, eta arras gustora egoten gara.

Gero, etxeko konponketa ttikiei buruz ere badugu bertze ikastaro bat. Entxufe bat haus-tan zaizula, edo plantak ez duela ongi mar-txatzen... hoiek nola konpondu ikasten du-

gu. Iturgintzari buruz ere zerbait egiten dugu, eta autoko konponketa ttikiak ere bai: zirrika aldatu, olio eta ura begiratu, gauza nahiko sinpleak baino beharrezko direnak.

EZ ZARETE EMAKUME ELKARTE BAT SOILIK, EZTA?

Ez, ez. Momentuan emakumeak bakarrik gaude, baina gizonak ere onartzen ditugu. Orain hainbat tokitan dirulaguntzak eskatze-ko asmoa dugu, horrela ikastaroak guttiago gostako zaizkio izena ematen duenari.

TESTUA:
ASIER GOGORTZA
ARGAZKIA:
OSKAR GOÑI

Agota: Baztango paria, Erdi Aroko legendun. Hala diote hiztegiek. Jendetan den ederrena duzu agota, dio bertze erranairu batek. Baina, nor ziren agotak? Inork ez dio erantzun zuzenik eman oraindik. Batzuen ustez, bisigodoen ondorengoak ziren; beraien arbasoak mairuak zirela zioten bertzeek. Kontuak kontu, sei mendetan baztertuak izan ziren eta berriki arte ez zituzten bertze herritarren eskubide berdinak erdietsi. Inork nahi ez zituen lanak egin behar izan zituzten, baina denboraren poderioz, ofiziale onenak izan ziren. Agotek jasandako bazterketa horren adibide begibistakoa Arizkunen eman zen, Bozate auzoan bizi baitziren agotak, herritik aparte. Alizia Stürtze historialariaren liburutik edan dugu erreportai hau osatzeko.

TESTUA: AITOR AROZENA



Arizkungo elizan azkeneko aukietan jartzeaz gain, sartzeko ere ate berezia zuten garai batean agotek

AGOTAK

Garai batean barride baztertuak

Arizkungo elizan ate berezia zegoen, elizaren alboan, agotak sar zitezten. Beti gibekeko aldean jarri behar zuten, herriko emakumeen gibelean. Arizkungo elizan bortz maila bereizten ziren: aldare aintzinean, etxeen jabeak; gero, hauen seme nagusiak, morroi eta guzi, eta atzerritarrak; hirugarren leerroan, auzoko etxeoandreak; ondoren, etxerik gabe-

ko emakumezkonduak; azkenik, berriz, agotak. Ponte berezia ere ba omen zuten, 1402. urteko bulda batek kontrakoa agintzen zuen arren. 1673.ean, Hausterre Asteazkenean izugarritzko istilua sortu zen Arizkunen, agoteek errautsak hartu nahi zituztelako. 1720.ean ere, Martin de Sola delako bati, elizan mezatan zela, eserita zegoen bankutik kendu eta agotenera joan arazi zioten eta bertan lotu «*le ataron asido de cabellos, brazos y cuello*».

Zikin fama zuten agotek eta *herritar garbietatik* urruti gelditu behar ziren. Ehortzi ere, ilunabarrean lurperatzen zituzten, ezkilak jo gabe. Beraien hausterrea ere kutsakorra zela uste zenez, aparteko lekua zuten hilerrian.

Baztanen, agotek erabilitako eserlekuak lastoz erre egiten zituzten «*para que no se les infeccionase*». Erraten zenez, beren bekatuen seinaleak begi bistan ziren: zango okerrak, belarri motzak, kiratsa...

1597. urteko agiri batek jasotzen du agoteenganako mespretxua hitz gutitan: «*Hago ixilik, agote! Etxeko zakurrarenak baino balio tikiagoa du eta hire iritziak. Inor baino gutiago haiz hi*».

Inork nahi ez zituen lanak egitetik ofiziale onenak izatera pasatu ziren


Horren ondorioz, duela mende batzuk inork nahi ez zituen lanbideak betetzera behartuak zeuden: borroero, sokagile, kupelgile, burdin-

gintza..., denetan lansari miserabile baten truke. Gainera, ezin zuten janariarekin zerikusirik zuten lanbiderik izan. 1606. urtean debekatua zuten errotari izatea (beranduago agoteen ogibide bihurtuko zen arren).

XVIII. mendean hasi ziren ofiziale gisara lan egiten, zurgintzan, aroztegietan, artisauntzan, igeltseritzan... Denboraren poderioz, arras zurgin onak bihurtu ziren, egurra lantzen onenak. Txistu eta danbolina jotzen ere maisu bihurtu ziren, baita dantzan ere. Duela guti agotak dantzari bikainak zirela onartzen zuten arizkondarrek, bertakoak baino alaiagoak. Bozatearrek ere horrela uste omen zuten: «*Bozateko besten inbidia zuten arizkondarrek, txun-txun hobeabait zegoen*».

Auzotasuna lortzeko arazoak

Auzotasunaren jabe izateko etxea garrantzizkoa zen XVII. mendean. Nafarroako legearen arabera, barride izateko kapare edo aitonenseme izateaz gain, neurri egokiko teiladun etxea eta armarrria eskatzen zen. Agotek etxe tikiak zituztenez eta, lege zorrotzen arabera, berririk ezin zutenez egin etxeak haunditzea zen barride izateko bidea. Honen inguruan ere, hamaika auzi gertatuko dira. 1661.ean, adibidez, haritza moztea debekatu zieten ago-



Bozaten ez ezik, Nafarroako herri auniztan hedatu ziren agotak XVI. mendean.

teei, etxeak konpondu ez zituzten. Bertze batean, arizkondarrek aizkorakadaz desegin zituzten agotek etxeak eraikitzeko prest zeuzkaten zurak.

Agot kopuruak goiti egin zuten neurrian, Baztango Junta Generalak neurri gogorra hartu zituen eta herritik bidaltzeko eskaria egin zuten

1696ko batzarrean: «...no puedan habitar los agotes, que viven algunos en grave prejuicio de la limpieza y nobleza de los hijos de esta provincia, suplica a la Junta se sirva de mandar el que todos los agotes que se hallaren en su distrito sean echados y espelidos de él a costa de ellos y sus bienes...».

Herri xehearen mesprezua jasotzen zuten bitartean, jauntxoek babesa eskaini zieten agotei, lanaren eta zergak ordaintzearen truke noski. Arizkongo Urtsuatarrek babesa eta lurra eskeini zizkieten Bozaten XIV. mendean. Trukean, garia jaunaren errotan ehotu behar zuten. Elbetean, berriz, salerosketak egiteko edo ezkontzeko, jaunaren baime-na behar zuten agotek. 1849.ean oraindik, Bozaten, eta 1850.ean Elbeteko Jarola jauregian, agotak auzi banatan murgilduak ageri dira: nahiz eta legez jaurreriak deseginak ziren, jauregiarentzako belagi-lanetara joanarazten, bertako errotan ehoarazten eta bostena ordainarazten segitzen zitelako.

Bizimodu tradizionala galten eta agotak gainerako herritar *odol garbiekin* nahastean joan ziren neurrian hasi zen agoten bazterketa alde batera uzten. Halere, oraindik joan den mende akabailan, 1878.ean, indiano batek eskola sortu zuen Arizkunen, baldintza bakar batekin: bertan bozatearrek tokirik ez izate. Gaur egun zaila da jatorriz agot nor den eta nor ez zehaztea. Garai batean lotsagarriz zena, gaur harrotasunez nabarmentzen dute: Xabier Santxotena eskulturgile eta sukaldari famatua, bere agot izaeraz harro agertu da behin baino gehiagotan eta bera bezala, bertze aunitz. ■



Cesareo SOULE Bozateko harri-zizelkaria

«Oraindik orain ofiziale onenak Bozatekoak dira, detaileak hobekien zaintzen dituztenak baitira»

Zer gogoratzen da auzoan agoten inguruko istorioetat?

Guk ez dugu ezagutu, baina aitak eta erraten zuten Bozateko bat eta Arizkongo bat esposatzen zirenean, ez zen sobera ongi ikusia. Adineko-

ek gaizki eramaten dute agotei buruz galdetzea, oraindik ere. Guk ez dugu ezagutu, baina zerbait izanen zen, ez da dudarik.

Zer gelditzen da gaur egun Arizkun eta Bozaten arteko banaketaz?

Deus ez. Noizbait etorri ziren odol-analisiak egitera, baina noski, ez dute ezberdintasuna haundirik topatu Bozate eta Arizkongoen artean. Ur-

teen poderioz, odolak nahastean joan dira, kanpotik ere etorri da jendea... Garai batean bestak aparte egiten ziren, eta erraten dutenez, Bozatekoak Arizkongoak baino hobeak omen ziren.

Agotak eskulangile eta ofiziale onak omen ziren. Oraindik hori nabari da Bozaten? Trebetasun berexia gorde duzue bozatearrek lan horietarako?

Lurra erosteko zailtasunak zituztenez, ofizioari lotutako jendea zen agota eta oraindik hori nabari da Bozaten. Gehienak ofizialak gara hemen, harginak, arotzak... musikariak ere hobeak omen ziren. Beti detaileak gehiago zaintzen ditugula iruditzen zait, lana ongi akitzea maite dugu. Nik ere agot-odola izanen dudala uste dut eta horretaz harro nago.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-

goinen. **Zuzendaria:** Aitor Aroze-

na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fer-

nandez, Lorena Galarregi, Pa-

blo Mendiburu, Franck Dolosor,

Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri, Frederick

Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Pello

Apezetxea, Aitor Arozena, Asier

Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

rroa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde**

Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goi-

zueta, Arano, Areso, Baztan, Ur-

dazubi eta Sarako udalak, Bortzir-

etako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomu-

nitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria160 Libera

Europa4.000 Pta.

Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Seme-alabei amaren abizena jartzea legez onartu dute

Beti aitarena jartzea zentzugabea denez, kontra egin behar zaiola uste dut



Itziar ALTZELAI
Leitza

Martxoan urte bat egingen du gure semea jaio zela, eta jaiotzeko momen-

tuan nere abizena jarri zioten ospitalean. Dena den, gero errejistroan izena ematerakoan ezinezkoa zela esan ziguten, eta aitarena jarri genion. Orain, lege berria indarrean sartu denez, gure asmoa da oraingo ordena aldatu eta amaren abizena jartzea lehendabizikoa. Beraz, errejistroa joan eta aldatu egingen dugu. Haurra eduki aurretik erabakia genuen hori. Neretzat behintzat logikoena da. Semea amarena dela garbi dago beti, aitarena den edo ez, ez da beti jakiten. Hori erdi brometan esaten genuen guk, baina kontua da emakumeari eskubide berbera onartu behar zaiola, gutxienez. Aitak ere berdin ikusten zuen, eta momentua iritsi zenean, ba aurrenta...

Eskubide hori ez zegoen garai batean erabaki genuen, eta gizartearen aurrean emakumeak duen eskubidea defenditzea zen asmoa. Erreibindikazio bat gehiago azken finean.

Absurdoa da aitaren abizena jartzea tradizioari eusteagatik bakarrik, eta horrelako kasuetan, zentzugabekoa denez, kontra egin behar zaiola uste dut.

Horixe da emakumeari gizonaren eskubide berberak onartzea



Jose Mari ARRAZTOA
Soziologoa. Elizondo.

Nik uste komunikabideetan oihartzun aunitz izanzen duela gai honek.

Dena den, aski kezagarria dena gizarte honetan dagoen matxismoa da. Gaurko familia ereduaren arabera gizona da agintzen duena, eta horren erakusgarri da seme-alabek beti aitaren abizena hartzea.

Hala ere, egia da familia eredu-a pixkanaka aldatzen ari dela, eta gaur egun gero eta ugariagoak dira guraso bakarreko familiak, edo bikote homosexual batek osatzen duena. Adibidez, seme-alabekin bakarrik bizi den emakume aunitz badago. Pentsa horrelako batentzat ze garrantzitsua izaten ahal den lege hau! Gainera, lege honi esker horren tradizionalak ez diren familiek ere aukera izanzen dute haurrei abizena eurek nahi duten ordenean jartzeko. Hori da emakumeari eskubide berdinak onartzea, eta gizarte justu eta solidarioago batean hala izan beharko luke nere ustez.

Lege honek guttiengo baten eskubideak defendatuko dituela argi dago, eta horrek erakusten du gizartea aitzinera doala, eta familia tradizionalaren aitzinean bertze familia ereduak ere babesten direla.

Ez al da funtsezkoa haurrak bere izena hautatzeko ahalmena izaitzea?




Solange MARILUZ
Sara

Ipar Euskal Herrian, ezkontzen den emazteak bere izena atxikitzen

ahal du, senarrarena hartu, edota bienak atxiki. Hala ere, emazte gehienek senarraren izena hartzen duten, nahiz eta ez diren batere horretara behartuak. Horrek ongi erakusten du arras praktika kulturala dela, usaia bertzerik ez. Emazte ezkonberriek amodiozko jestua dela erranez justifikatzen dute horien hautua. Baina senargaia ez al da amodioz ezkontzen bera ere?

Sortizenaren kasuan, ezkonduak diren familietan haurrak aitaren izena hartzen du erregistro zibilean. Amaren izena balia dezake eta dokumentu administratiboetan agerrarazi ere. Aldiz, amaren izena erregistro zibilean agertzen ez denez haurrak handitzean ez du baliatzen ahal bere seme edo alaberi helarazteko. Ezkonduak ez diren familietan, haurrak aitaren izena hartzen du biek denbora berean onartzen badute, bertzenaz onartu duen lehenarena hartzen du.

Zer ote du gizonak emazteak ez duenik? Bien izenak ofizialki baliatu beharko liratekela errangabea doa, baina ez al da funtsezkoa haurrari berea hautatzeko ahalmena ematea?



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

Ei, gazte!

Gu BAGeko (Bortziritako abertzale gazteria) partaide gara. Eskutitz honen bidez, Bortziritako gazteei dei hau luzatu nahi diegu, gure egitasmoaren berri emanez. Gure helburu nagusiak, gazteen eskubideak aldarrikatzea, Euskal Preso eta Errefuxiatuekiko elkartzasuna adieraztea, okupazio indarrak kanporatzea, gure nazioaren, Euskal Herriaren independentzia bultzatzea, eta euskarari indarra ematea dira. Bertze zenbait helburu baditugu baino gehienbat gai hauen inguruan mugituko gara.

Euskal Gizarteak eta Euskal Gazteriak bizi duen egoera lazgarriaren aurrean, denok borroka egitea beharrezkoa da. Horregatik, gonbidapena luzatzen dizuegu egingo diren ekintzetan parte hartzeko. Altxa burua eta etsaiari eraso!

BAG
(BORTZIRIETAKO ABERTZALE
GAZTERIA)



NUP eta euskara

Berriki jakin dugunez, Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko hizkuntz normalizaziorako planaren zirriborroa egin dute.

Laburbilduz, plan horren arabera euskarazko irakaskuntza hautazko ikasgaietara

mugatuko da eta derrigorrezko edo enborrezko ikasgaietan beriz, euskaraz ikas-terik ez da izanen (magisteritzan izan ezik).

Planean aitortua omen dago datozen urteotan gizartearen eskaera euskaraz ikasi ahal izateko handitu egingen dela. Are gehiago, IKEI enpresak egindako txostenaren arabera, sei urtez D eredutik iritsiko diren ikasleen kopurua laukoiztu egingen da. Gaur egun NUPen euskaraz ikasteko dagoen eskaerari dagokionez, irakurri dugu Nekazari Ingeniaritza Teknikoan eskaera altuenetakoa dagoela, batez ere EAEtik datozen ikasle kopuruengatik. Alabaina, inon ere ez da jaso Nafarroako zenbat eta zenbat ikaslek joan behar izaten duten Euskal Herriko Unibertsitatera, han ikasketak egiteko aukera dutelako.

Plana Nafarroan bizi dugun errealitateetik kanpo dago. Errate baterako, Bortziritan ikasturte honetan euskaraz ikasten ari diren ikasleak %93,7 dira. Ikasle horiek (Bortziritako ia denek) unibertsitatera jo behar dutenen bi aukera izanen dituzte: bata, NUPen gaztelaniaz ikastea eta bertzea, aukera izanez gero EHUra ikastera joatea. Jakina denez, datu hauek ez dira Bortziritakok bakarrik, Nafarroako bertze edozein eskualdetan antzekoak baitira.

Zinez uste dugu plana ez de-

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

la egokia eta ez duela oinarri moduan hartu Nafarroako errealitatea. Beraz, zirriborroa bertzerik ez denez, Arantzeta, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako Udalek osatzen dugun Mankomunidade honetatik plana diseinatu dutenei proposamena berraztertu eta errealitateari egokitzeko eskatzen diegu, euskarari gaztelaniak duen tratamendu berbera emanez. Horrela bakarrik bermatua egonen da Nafarroako ikas-

le eta herritar guzien hizkuntz eskubideak betetzea eta errespetatzea.

JOSE RAMON AMOROS OSKOZ
(BORTZIRIETAKO EUSKARA
MANKOMUNIDADEKO LEHENDAKARIA)



Euskalduntasunari erasoak eta hauteskundeak berdintasunean

Beran, Gure Txokoa elkartearen egoitzan (lamotenean), kartelak jartzeko taula bat dago. Egoitza horren inguruan jende franko mugitzen da, eta toki aproposa da kartelak jartzeko. Hala ere, bixia da hor apenas kartelik ez ikustea, eta jartzen direnak gauetik egunera desagertzea.

Otsailaren 23an, Berako Posta bulegoaren parean patrol berde bat zegoen, barrerean bi eltzetzu kartel gorri handi bat eskutan. Kartela EH-rena zen, abstentzioa eskatzen duen horietakoa. Zer ote da, horiek ere abstentzioa eskatzen dutela? Edo paretetatik kartelak kentzen ibilki dira? Guztiok dakigu erantzuna.

Bertzalde, hauteskundetan komunikabide publikoetan tokia ukatu egin zaio EHri. Egunotan sekulakoak eta bi leporatu dizkigute. EHk gatazka gainditzeko egindako proposamenei kasurik ez... eta justizian oinarritutako ba-

keaz hitz egiten dugunean ere ez gaituzte sekulan aintzat hartzen. Baina Euskal Herritarrok taldean ez dagoen erakunde batek ekintza armatua burutzen duenean orduan guztiok EH hartzen dute gogoan. Desitxuraketa lan bikaina, satanizazioa, mamu faltuen sortzea, benetazko eztabaida politikoa saihesteko.

Gerra egitera etorri zirenek gerra estrategiarri jarraiki Euskal Herria suntsitzeko ahal duten guzia egiten dute. Eta honeri demokrazia deitzen diote! Euskalduntasun usain nimoñoena duenaren kontra bortizki aritzen dira, kultur ekitaldien kartelak ere kentzen dituzte! Nola bildu dezake bakea gorrotoa ereiten duenak? Argi dago hauteskunde hauek ez direla demokratikoak; batetik, ezin direlako aukera guztiak berdintasunean defendatu, eta bertzetik Euskal Herriak, herri gisa subjektu demokratiko izateko duen eskubidea ez delako errespetatzen. Eta gainera euren antzezlanean parte hartzeko eskatzen digute! Eurek agindu eta guk obeditu? Animaliek ere obeditzen badakite! Desobedientziarako garaia da, Euskal Demokrazia behar dugu bizirik irauteko, Euskal Herria eraikitzeko.

BERAKO EH



**KOXKILA
OSTATUA**

Zarandía, 4 - **LESAKA**

PUBLIZITATE AGENTZIA

Diario de Navarra **Gaijak**

Noticias **EL CAJON WESCO**

informazioa:
☎ **948 63 11 88**
E-Posta: kulturkari@euskalnet.net
Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

Zure publizitatea egunkari, irrati edo telebistetan agertzeko **KULTURKARI** bitartez duzu biderik errazena. Hontsullatu bakoitzak duen tarifa.

KULTURKARI
publizitatea zerbitzuak

**Alberto
RETEGI
abokatua**

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763

 **Xabier BALLARENA** Erratzutik

Piriniotako autobideari buruz informazio guti dago



Pasa den orztzilerian Iparraldeko LEIA (Leku-ko Ekonomia eta Ingumenaren Alde) elkarteak bere biltzar nagusia egin zuen Lartzabalen eta gonbidatu gisan baztandar batzu harat agertu ginen. Ez da lehendabiziko aldia gure inguruan mugaz gaineko jario handiko bidearen gaia aztertzen dugula; hor dugu aurtengo Baztandarren Biltzarrean Erratzuko herriak karrikaratutako karroza edo orain dela gutti Erratzuko Kultur Elkarrekin deituri-ko mintzaldia. Bide honen afera (muga pasatzeko egin nahi duten autobidea/autopista) aspaldiko kontua da, hain zuzen ere orain dela hiru urtekoa. Merkantzien garraraioa gero eta ugariagoa dela eta gaur egun dauden pasabideak kolapsatuak daudela ikusita alternatibak bilatzea bururatu zaitzaie gure agintariei (gaur egun 6.000 kamioi pasa zeharkatzen dute Hendaia-ko muga, bertze bizpahiru mila kamioi pasako ziren autobide/autopista berrietik). Hortan datza problema guzua: bertze garraraiobidea behar da merkantziak pasatzeko. Alternatiba desberdinak ikertzeari ekin zioten eta estudio horren emaitza Baztango Udaletxean duzue. Hiru dira proposatutako bideak: Luzaide alternatiba, Alduide alternatiba eta Izpegi alternatiba. Hiruek hainbertze ezaugarri dituzte amankomunean: autopis-

ta batetik hasi eta bertze batean akitzen dute; tunel aunitzez hornituta daude; zeharkatzen dituzten eremuak nekazaritzarako hoberenari-koak dira... Hitz gutxitan hau da autobidearen afera. Ondokoa leituta hainbertze galdera bururatuko zaizue, neri bezala. Egingo dute horrelako bidea? Gure eskualdetik pasako da? Horrelakorik behar dugu? Horrelakorik nahi dugu? Zergatik ez digute lehenago deus erran? Nik erantzunik ez ditut eta LEIAkoek ezta ere, (afera

Alternatiba guzietan ezaugarri berdinak dituzte:
autopista batetik hasi eta bertze batean akitzen dute;
tunel aunitzez hornituta daude; zeharkatzen dituzten eremuak nekazaritzarako hoberenari-koak dira...

honetan zerbait nabaria baldin bada informazio eskaxa da), hala ere gogora ekarriko ditugu ondarraste haue-
 tan prentsan ateratakoa. Loyola de Palacio (Europako Batzordeko Lehendakariordea): "Espainako Gobernua mugaz gaineko autobidea Nafarroatik pasatzearen alde dago". Sanz jauna (Nafarroako Gobernuko Presidentea): "Pirineoak zeharkatuko dituen autobideak Nafarroatik pasatu behar du". Gure agintariek horrelako aferetan hartutako erabakiak kontutan baditugu (Itoiz, Leitzarango autobidea, Beleteko tunelak...) dardarka hasteko momentua dela iruditzen zait.

 **Andres DIHARASARRI** Urdazubiko alkatea

Xaretako lau herriek herri bakar bat egitea nahi dugu



Xareta eskualdearen etorkizunari buruzko ikerketa egin eta otsaila akabailan aurkeztu zen.

Non garen eta nora gantzeko egin da diagnostiko hau. Inguru honetan, turismo eta zerbitzuetan aitzinera goaz, baina laborantzan gibelera. Hemendik urte baten buruan Interreg-3an sartzen garelarik sos laguntzak ukanen ditugu Europatik eta zertara bideratu jakin behar dugu. Laborariek egiten duten lana (gasna, bildotsak...) hemen berean saltzeko sistemaren bat atxeman beharko genuke, bertzenaz gibelka gaki gara. Ez gara turismoari begira bakarrik egon behar. Sara, Ainhoa, Urdazubi eta Zugarramurdiren arteko harremana betikoa da. Larunetik begiratu eta dena lurralde bat da. Gureta behin ere ez da mugarik izan. Lehen, gaueko lanarekin harremanak estuagoak ziren eta orain, lehengo gurutzatze horiek eskasten ari dira. Horregatik egin ginuen Xareta Eguna. Nere ustez, herri bakar baten gisan funtzionatu beharko genuke. Lau herriek bat egin beharko genuke kultura eta kirol mailan: Saran badute trinketea eta plaza librea, Ainhoan ere bada plaza librea, Zugarramurdin eta Urdazubin frontoia... Nahi ginuke Sara eta Ainhoakoak ezker paretean aritzera etortzea eta hemengoak trinketea eta librean aritzera gatea. Sarako Izarra errug-

bitaldean edo Urtxintxak eskubaloitaldean hemengoneska-mutikoak aritzea on izanen litzateke. Tipiak dantzari ikasten hasia nahi dugu eta gero aukeratuak dute Ainhoako Atxularirat ganteko Sarako Zazpiak Batera ganteko... Herri bat izan dadila. Urratsez urrats ganteko egunen batean Txingudiko bezalako kontsorzio batera ailegatu nahi dugu. Hor badugu eredu bat: Irun, Hondarribia eta Hendaia elkartu dira Txingudiko kontsorzioan. Hori aztertu eta

Gure helburua Xaretako lau herriak kontsorzio batean biltzea litaiteke, Europako sosak elkarrekin biltzeko gisan. Jendea ere mentalizatu beharko da. Hor dugu Txingudiko eredu, baina 80.000 bizilagun dira eta gu 3.500 bertzerik ez.

hemen ere berdinegitea ahal den ikusi nahi dugu. Bada diferentzia noski. Txingudin 80.000 bizilagun dituzte eta Xaretan 3.500. Sos mailan murrizte gaitzen gara. Lau herrietako jendea ere mentalizatu egin beharko da. Honelako kontsorzio batean sartu aitzinetik nahi dugu jakin ea kapable garen. Gure helburua litaiteke kontsorzio hori sortzea, elkarrekin Europako sosak biltzeko. Horren arian, bi bulego ideki nahi ditugu. Bat Dantxarriean egiten litzateke, karabineroak egoten ziren garitan eta bertze, Saran, Syndicat d'Initiative erakundearen bulegoan.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



NAFARKARIA 2000ko otsailak 11

«Ijito baten istorioa kontatu dut, ez ijito guztiena, ez da etnia baten istorioa»

«Bizi, entzun eta ikusitakoak islatzen ditut nire lanetan. Sorterriko gauza franko ditut, zaharregandik hartuak, aita edo amari entzunak. Lapurtutako gauzez beteta dugu, finean, gure zakua».


Mikel TABERNA
BERA. Idazlea
NAFARKARIA
00-02-11

«Txirrindularitza 18 urterekin hartu nuen serio, eta ordudanik nire helburua profesio-naletara pasatzea izan da. Zail ikusten dut, ordea; hagitz zail. Nire esku dagoena eginen dut, baina azken erabakia ez dago nire esku».

«Triatloia amateurragoa da txirrindularitzaren aldean»

Patxi VILA
BERA. Txirrindulari amateurra
Egunkaria, "Mundu bira"
00-03-03

- ◆ **Bizio bat?**
- ❖ Gustatuko litzaidake bertsolari izatea.
- ◆ **Non aditu duzu bertsorik onena?**
- ❖ Herrian, Aterpen egindako bertso saio batean Lizasori.
- ◆ **Aurtengo inauteriak bi hitzetan?**
- ❖ Giro ona.
- ◆ **Mozorro ateratzearen alde ona eta txarra?**
- ❖ Alde ona, gure artean kriston giroa izaten dela, eta txarra, goizean goiz mugitu behar dela.
- ◆ **Zenbateko kuadrila ateratzen zarete mozorro?**
- ❖ Denetara hamabortz trikitixarekin.
- ◆ **Aterik itxi al dizute?**
- ❖ Ez, oraindik ez.
- ◆ **Zergatik egiten ote da emakumeen afaria ortzegunean?**
- ❖ Nik beti horrela ezagutu dut.
- ◆ **Mozorro beltzekin arazorik izan al duzue?**
- ❖ Batere ez, baina gutti ikusi ditugu.
- ◆ **Inauterietan, zerbait faltan edo soberan?**
- ❖ Aurten dena konpleto zegoen.
- ◆ **Mozorro ateri edo Santaketalari?**
- ❖ Mozorro ateri, honela eguna ere probexten baita.
- ◆ **Ikusi duzun disfrazik orijinalena?**
- ❖ Haurrez disfrazatu zen koadrila.

**Aitor TELLETXEA**

ARANTZA
Inauterietako mozorroa

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun
24.000 irakurle

**ETXANDI TXOKO
jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

**ttipi-ttapa
internet**

<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

**HELBIDE BERRIA**

Legia 36ra (20 metrotara)
aldatzen gara

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritzea

Zure ordutegira egokitzen gara

**FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donoztebe**

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Martxoaren 19an irekiko da amuarrainak eta izokinak arrantzatze denboraldia

Izokinaren kasuan, Bidasoan 75garrena harrapatzen den egunean itxiko da

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, martxoaren hirugarren igandean zabalduko da Nafarroako erreketan arrantza egiteko denboraldia. Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak araudia onartu du, aitzineko urteetatik aldaketa haundirik ez duena.

Honela, izokinaren arrantzari dagokionez, martxoaren 19an zabalduko da denboraldia eta 75. izokina harrapatzen den egunean itxiko da. Egun horretan ere arrantza egin ahal izanen da, beti ere ehun izokin baino gehiago hartu gabe. Uztailearen 16rako oraindik gehieneko kopuru horretara ailegatuko ez balitz, egun horretan itxiko litzateke denboraldia. Aspartetan ezin izanen da izokinik harrapatu, besta egunetan izan ezik. Gainera, 40 zentimetrotara ailegatzen ez diren ale guzikiak berehala itzuli beharko dira errekarara, ahalik eta kalterik guttien eginda. Arran-



9.000 izokin kume askatu zituzten Enderlatsan

Oronoz-Mugairiko haztegian denboraldi honetan markatutako 9.000 izokin kumeak otsailaren 24an askatu ziren Bidasoan, Enderlatsa inguruan. Javier Marcotegi kontseilaria eta Ingurugiro Departamenduko ordezkariak gain, arrantzale batzuk (Berako Ehizi eta Arrantza elkartekoak edo Bidasoako Izokinaren Kofradiakoak, tartean) eta komunikabide aunitz bildu ziren, ikusmin handia piztu baitzuen izokinaren askatzeak.

Argazkia: Asier



tzale bakoitzeko kaina-bakarra onartuko da eta egunean izokin bat ateratzen ahal da gehienez. Bertze nor-

bait esperoan baldin badago, arrantzalea hogei minutu baino gehiago ezin da egon leku berean. Denboralditik kan-

pora, ezin izanen da inolako arrainik hartu Doneztebeko San Tiburtzio presa eta Enderlatsa artean.

AMUARRAINAK, ABUZTUAREN 31 ARTE

Amuarrain arrantzari dagokionez, abuztuaren 31n itxiko da denboraldia. Ekainaren 30a arte, arrantzale bakoitzak eguneko bostz amuarrain harrapatzean ahal ditu gehienez. Uztailearen 13tik aitzinera, berriz, gehieneko kopurua hiru alekoa izanen da. Erreka haundietan, 21 zentimetrorara ailegatzen ez diren amuarrainak urera itzuli beharko dira lehenbait lehen. Erreka ttikietan, berriz, 19 zentimetrokoa da guttieneko tamaina. Bidasoan ezin izanen da amuzki naturala erabili maiatzaren 30a arte honako erreka zati hauetan: Ezkurra erreka Donezteben Bidasoarekin bat egiten duenetik behera; Ezkurra errekan, Zubietako zubitik behera eta Ezpe-lura errekan, Oizko zubitik behera. Gainerako erreketan ezin izanen da amuzki naturala erabili apirilaren 30a arte.

KATERA-BIKE

Bizikleta Tailerra

Errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak

Arropa eta osagarriak

Salmenta eta konponketa

Kalln r r l s e
T x T l 31 21

rtzi U I

E

© 948 631462
Altzate I • BERA

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

E EK L E

st tu

Tfnoa: 948630259 - BERA

Xirgil

© 948 631462
Altzate I • BERA

© 948631076 • BERA

"Lotsagabe" izeneko proiektua sortu da Bortzirietako gazteentzat

Hainbat ikastaro interesgarri antolatzea izan da lehen urratsa

ASIER GOGORTZA

Martxotik aitzinera borts ikastaro desberdin izanen dituzte auzerako Bortzirietako gazteek: Antzerki tailerra, Sexu Heziketakoa, Argazkilaritza ikastaroa, Euskal Dantzak, eta, Lotsagabe aldizkaria.

Berako kultur taldeek antolatu dituzte ikastaro hauek, kultur dina-

mizatzailearekin elkarlanean. Hasiera batean 12 urtetik 25 urte bitarteko gazteentzat pentsatuak daude. Ikastaroetan zer eskaintzen den ikusiko dugu banan banan: Antzerki tailerra, adibidez, Lamixine BAT taldekoek emanen dute martxoaren 11tik aitzinera, eta larunbata goizetan izanen da Kultur Etxean.

Sexu heziketa ikastaroa Kaxerna Aisialdi Taldeak antolatu du, gai horren inguruko ezagutza eta informazio faltarekin kezkatuta. Argazkilaritza tailerra ere Kaxernak hartu du bere gain. Zuri-beltzeko argazkiak ateri eta errebelatzen erakutsiko dute. Apuntatu den jendea bitaldetan bereziki dute. Batzuk larunbat goize-

tan ariko dira, eta bertzeak astearte ilunabarretan.

Euskal dantzen ikastaroa, berriz, Gure Txokoa Dantza Taldeak prestatu du. Martxoaren 13tik aitzinera dantza herrikoiak ikasiko dituzte astelehenero, arratsaldeko 5etatik 6etara. Arin-arin, fandangoa, jota eta oro har plaza dantzatzekoak erakutsiko dituzte.

Lotsagabe aldizkaria

Dena den, Lotsagabe aldizkariarena da aurkeztu diren proiektu guzien artean ausartena. Gazteek gazteentzat egindako aldizkari bat ateratzea da asmoa, beti ere gazte jendearentzat interesgarri diren gaiak bilduz: musika, kirola, sexua... Nola nahi ere, aldizkari batek barrenetik nola funtzionatzen duen ezagutzeari da ikastaroaren egiazko helburua. Ortzegun honetan arratsaldeko 5etan Iamotenean egingen den bileran erabakiko dute ikastaro hau noiz hasiko den.

Ikastaro hauek antolatzea izan da Lotsagabe egitasmoaren lehenbiziko lana, baina aitzinerago bertze proiektu batzuk martxan jartzeko asmoa agertu du-



Giro onean joan dira aurtengo inauteriak

Joan den ortzegunean, argazkian ageri den talde honek bezala, ehundaka haurrek zingar-arrautze eskea egin zuten herri guzian barna. Horrela hasi ziren aurtengo inauteriak, baina hortik aitzinera bata bertzearen gibeletik etorri ziren ospakizunak. Larunbatean kaldereroek euren ohiko itzulia eta ezkontza egin zuten, eta igandean iñude eta artzaiak dantza eta kantu aritu ziren nekatu arte. Astelehenean, berriz, nagusiek egin zuten puska biltzea baserri eta auzoetan barna, eta ondotik, mozorro kuadrila guziak Altzateko ostatuetan elkartu ziren.

HAUTESKUNDE MAHAIETAN EGON BEHAR DUTENAK

1. HAUTESKUNDE BARRUTIA (herriko bizilagunentzat):

1. saila, A mahaia: Ana Rosa Arribillaga Iriarte (lehendakaria) eta Victor Korta Agirre eta M^a Pilar Eskudero Telletxea (bokalak).

1. saila, B mahaia: Miren Nekane Goia Telletxea (lehendakaria) eta Patxi Iriarte Huarte eta Juan Tomas Loiarde Mariezkurrena (bokalak).

1. saila, C mahaia: Rosa María Pizzio Telletxea (lehendakaria) eta Asier Semper Mazizior eta Juan Luis Urkiola Iriarte (bokalak).

2. saila, U mahaia: Marta Castillo Lazkanotegi (lehendakaria) eta Maria Gloria Iglesias Vázquez eta Olga Oliveira Ustariz (bokalak).

2. HAUTESKUNDE BARRUTIA (auzoetako bizilagunentzat):

1. saila, U mahaia: Maria Belen Cueva Ruiz (lehendakaria) eta Ainhoa Goñi Petrirena eta Francisco Javier Manterola Ado (bokalak).

flash

Udal aurrekontua

Iaz baino 172 milioi gehiagoko aurrekontua onartu du Udalak 2000. urterako, 617 milioi pezeta. Kulturaren diru gehiago sartu da, eta 3. munduko herrialdeentzat gastu finakoaren 0,7a bideratuko da. Bertzalde, auzo bideak moldatzeko ere 46 milioi aurrikusi dira.

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zagarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



© 948630155
BERA

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

➔ **LESAKA**

Herriko 'Mairu' antzerki tailerraren estreinaldia martxoaren 18an

«Trizikloa» antzeslana eskainiko du Irain eskolako kiroldegian

AITOR AROZENA

1998ko udazkenean hasi ziren lanean herriko Mairu antzerki tailerrekoak. Geroztik, hamaika entsaio egin dituzte eta martxoaren 18an ailegatu zaie «Trizikloa» antzeslana jendearen aitzinean erakusteko eguna. Ramon Albisturen zuzendaritzapean, Maite Mendegia, Ane Otxandorena (Elgorriaga), Gotzone Rekondo, Juanen Saralegi, Gaizka Sarasola eta Andoni Sarasola aterako dira Irain eskolako kiroldegiko taula gainera, arratseko 8etatik aitzinera. «Trizikloa» antzeslana Fernando Arrabalek idatzia da eta Beñardo Goietxek euskaratu du. Lehenbiziko aldia da antzeslan hau euskaraz egiten dela. Aipatzekoa da musika ere Gaizka Sarasolak moldatu duela. Lesakako Udalaren, Bortzirietako Euskara Mankomunitadearen eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza izan du te antzeslana estreinatzeko. Martxoaren 25ean bigarren emanaldia eskainiko dute Berako Kultur Etxean. Apiriletik aitzinera tailerrak ikasturte berri bat hasiko du, nahi duten guztientzat irekia.



Frain auzoan lehendabiziko zaborontzia jarri dute

Gezurra badirudi ere, otsaila akabaila arte Frain auzo osoan ez zegoen zaborontzi bakarrik ere ez. Garai batean, auzoetako zaborontziak banatzera-ko orduan, esnea biltzen zuen kamioia pasatzen zen lekuetan paratu omen zuten. Geroztik, ordea, bide ederra egin da Frainen eta, gainera, etxe berri aunitz eraiki dira auzoan. Kontuan hartu behar da kanposantua ere auzo honetan dagoela eta usteldutako loreak eta soberan gelditu den lurra aunitz pilatzen da hilerriko paretaren kontra. Bizilagunek behin baino gehiagotan kexa azaldu diote Herriko Etxeari eta Bortzirietako Zabor Mankomunitadeari. Otsaileko azken astean zaborontzi bat jarri zuten, baina oraindik gehiago behar direla uste dute auzotarrek.

Liburuzain izandako Marijo Agirretxeri arrazoia eman dio berriz ere Epaitegiak

Mari Jose Agirretxe, garai batean udal liburutegiko ardura-duna izandakoak bere lan egoeraren berri eman zuen otsailaren 23an egindako prentsaurreko batean. Berekin batera, Pepe Urujuela abokatua agertu zen. Prentsaurrekoan adierazitakoaren arabera, «Lesakako Herriko Etxeak aurkeztutako errekurtsoa gibelera bota eta Nafarroako Auzitegi Gorenak berriz ere arrazoia eman dio langileari, eta kanporatzea ez zela bidetzekoa izan adierazi du. Horregatik, langilea berriz hartzera edo kalteordaina ordaintzera behartzen du Udala». Marijo Agirretxek azaldu zuenez, «dagoeneko kalteordaina jaso dut, baina nik ez dut nahi denok ordaindutako diru bat ematea,

berriro ere lanean onartzea baidetik». Bi sententzien arabera, «Udala da erantzule bakarra».

Jose Luis Etxegarai alkateak ardura Nafarroako Gobernuarena dela erran du berriz ere. «Liburutegia Nafarroako Sarean sartua dago, beraz, Udalak ez dauka lanposturik liburutegian. Epaileak kalteordaina Udalak ordaindu behar duela erran du, baina hemendik aitzinera, liburutegiko gastu guztiak Nafarroako Gobernuak egingen

▼ **flash**

❖ **Igerilekuko ostatu-jatetxea** hartzeko lehiaketa deialdia luzatu du Herriko Etxeak. Proposamenak martxoaren 24ko eguerdiko ordu bata baino lehen aurkeztu behar da udal bulegoetan. Adjudikazioa prozedura negoziatuaren bitartez egingen da. Baldintza plegua Udalean dago, interesatuen esku.

❖ **Ongietorri beroa sokatira taldeari**

Holandako Munduko txapelketatik lau domina ekarri ondotik omenaldi ederra eskaini zitzaion Betti Gazteko sokatira taldeari otsailaren 28an. Bandaren laguntzaz Herriko Etxera joan ziren. Gero, kioskoan alkateak zuzendutako solasak eta Manolo Arozenaren bertsoak aditu zituzten. Maite Bidarte eta Mirren Eguesek aurrekua dantzatu zieten

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • © 948637518
LESAKA

BITTIRIA
HARATEGIA
© 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnos: 948 637 127
LESAKA

Lurrindenda
Masian
Lurrindenda
Estetika
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

ETXALAR


Kartak ez dituzte baserrietara eramane

Herriko posta zerbitzua nabarmen murriztu dute

PELLO APEZETXEA

Udalak onetsi berria du posta zerbitzuko lanerako tokia, lehen Gizarte Zerbitzurako erabilitakoa, komisaldegia azpian. Otsailaren 3an hartu zuen akordioa. Eta, hara!, hilabetea akautu baino lehen, otsailaren 24an sinatutako papera bidali du 'Correos y Telegrafos'ek baserrietara, non kartak karrikako bulegoan jasotzen ahalko dituztela erraten duen. Horretarako ordua, 10,15etik 11,15era. Bulego-raino etorri nahi ez izanez gero, etxetxoak paratzen ahal omen dituzte baserriek, baina auzoaren sarreretan, postariaren lantokitik hurbil samar. Paperak erraten

ez badu ere, postariari baserri auzoetan banatzeko 9 kilometro ordainduko baitiozte, denetara, ez gehiago. Baina ez da hori murrizte guzia. Etxalar Berako posta zerbitzuko zati bihurtu da. Kartak ez dira Etxalarrera Iruñetik etorriko, orain arte bezala, posta autoa bertaratuz. Orain Beran utziko ditu Iruñetik heldu den autoak. Berara joanen da, goizeko 8etan, Etxalarko lana egiten duen postaria, eta handik ekarriko ditu 10,15erako Etxalarrera. Bulegoan ordu bat egin ondotik, kartak banatu eta hemendik kanporako kartak Berara eramane dituzte, ordu bat inguruan. Han geldituko da postaria, ordutegia be-



Jon Larretxea da, momentu honetan, herriko postaria, Fidel Cruzek udan lana utzi zuenetik.

te arte. Fidel erretiratu dela-eta probexu dute, iduri duenez, aldatze eta murrizte egiteko.

Kultur Etxerako dirulaguntzak

Cederna-Garalurren bidez 1.600.000 pezeta eskuratuko ditu Udalak, herrikoetxe zaharrea kultur-etxe plantatzeko. Nafarroako Gobernuak ere laguntzak eskatzeko deialdia hedatu duenez, Udaletako kultur-etxe eta liburutegiarentzat, hain zuzen, bietarako galdetu du Udalak.

Autoak aparkatzearekin problemak

Karrikan autoak us-tez gaizki uzteagatik goardia zibilaren salatzeak izan direla-eta, Bandoa eman du argitaratu Udalak, abiadura, aparkamendua, bideen erabilera eta abarreko arauak gogoratzeko.

Udaltzainak paratuko ote dituzte?

Ondoko herriekin elkartuta, udaltzaintzako zerbitzua izatea posible ote den begiratzen ari

dira Udaltzainak. Karrikako zaintze lana betetzeko, alegia.

Haurren esplotazioak erakusketa eskolan

Munduan aunitz haur ari da helduentzako lanean, eskolako urteetan, preziskia, ikasten ari beharrean. Mundua ezagutu eta hobetzeak munduko egoera guziak ahal den neurrian ezagutzea eskatzen du. Haurren esplotazioari buruzko argazki erakusketa egon da Landagain eskolako sarreran.

XATUBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

Lanchas

 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak
 • Estaldura orokorrak
 Bera © 948630735

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea
 © 948635290 **ETXALAR**

«USOA»
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

LINDY RREN BORDA

sagardotegia
 • 100 lagunendako jantokia
 • Sagardotegiko menua
 • Gosariak eta bokadilloak
 Ardoa ere lupeletik ematen da
 Nabaz Auzoa • **LESAKA**
 © 948 637212

HARITZPE

 948635235
 948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

 Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

KAYULA

 - Sukaldeko tresnak
 - Opariak
 - Pinturak
 Albistur, 51 **LESAKA**
 © 948 63 75 58

Pinturak eta barnizak
LESAKA
 ☎ 689 042 671
 ☎ 948 637556
 Manuel Zamorano

IGANTZI

Biltoki Elkarteak ekitaldiz betea du hilabete osoa

Giro ederrarekin joan dira aurtengo iñauteak

OSKAR TXOPERENA

Joan den hilabetean Biltokin izandako baztarrarekin jarraituz, zenbait gai ondotik aipatzeko utziak genituen. Elkartearen areto edo lokaletan beharrezkoak ikusten ziren moldaketekin segitzen du lanean Junta berriak. Heldu den asteko larunbatean, martxoaren 18an, arratsaldeko 8,30tan, eginen den bilerara deitu ditu bazkide guztiak. Bertan, egin beharreko obrei buruz bakoitzak bere eritzia eman ahal izanen du eta zerbait erabakitzen saiatuko dira.

Bertze bi ekitaldiren berri ere eman digute elkartekoek: Aldebate-
tik, aste honetako la-

runbatean izanen den partxis eta mus txapelketen finalena, eta bertzetik, martxoaren 25ean Astigarragako Egiluze sagardotegiari eginen zaion bisitarena. Joan nahi duenak 15a bitartean ematen ahal izanen du izena, 3.500 pezeta ordainduz.

Iñauteak giro ederrean joan dira

Ederki joan dira aurtengo iñauteak ere. Argazkian ikusten ahal den bezala, talde ederra ibili zen mozorrotan, 35 lagun ingurukoa, eguraldi zoragarriarekin gainera. Larunbat ilunabarreko ekitaldiari ere ezin aitzakiarik paratu. Urte-
tik urtera jende gehiago biltzen duen



Hogeita hamabortz lagun atera ziren mozorroen taldean, eguraldi ederra lagun zutela. Akordeoi eta pandero doinuak auzoz auzo eta baserriz baserri hedatzen zituzten bitartean, eskean eta dantzan aritu ziren.

Argazkia: Oskar Txoperena ikuskizunean, nahikoa lan izan zuten epaileek sei "neska" ederren artean "Miss Igantzi" aukeratzeko. Azkenean Inaxi Bereau izan zen irabazlea.

Haurren iñauteek ere hagitz ongi joan dira. Ortzegun gizen egunarekin eman zieten akabila, eta orain, eskolarik gabe etxean pasatzen ari diren aste ederki etorriko zaie hain-

bertze bestaren ondorioa pasatzeko.

Frontenis txapelketa

Aste honetan ere hasiko da Biltokik antolatuen lehendabiziko frontenis txapelketa. Palaz bezalaxe, hamabi izan dira izena eman duten bikoteak. Erran bezala, martxoaren 10ean hasiko dira jokatzeko eta finalak api-

rilaren 29an egitea espero da.

Istripu latza

Jozan baserriaren ondoan lanean ari zenean izandako istripu larriaren ondorioz bizia galdu zuen Jose Miguel Zubiri herritarrak otsailaren 25ean. Gisa honetan gertatzen diren ez-behar guzietan bezalaxe, atsekabe handia utzi du herrian. Goian bego.

ZALAIN
IATETXA
EQUIPAMIENTO PARA LA SALUD

Zalain Auzoa
948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

REBIZUN S.L.
CONSTRUCCIONES MECANICAS

ikinaria eraikuntza
aldaketak eta despiezea
intanimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • 948 627572 • Faxa: 948 637508

Jose Canabal
elektrizista

948 637541
666 575899
IGANTZI

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ERROTAZAR
Eztegarara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • **BERA**
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

LEBARRA

ARANTZA

Umore eta jende aunitz aurtengo iñauterietan

Igande eguerdiko pilota eta herri kirol desafioek jende aunitz bildu zuten

ELIXABET ETA GARBIÑE

Inoiz iñauterietan ikusi ez den jende pila hurbildu da aurtengoan herrira. Ortzegunetik hasi ziren iñauteriak eta, urtero bezala, emakumeek afaria egin zuten. Aurten, Burladan egin zuten eta hogeita hamar emakume hurbildu ziren. Mozorroak ere han barna ibili ziren, base-rietako buelta akautu ondotik.

Ortziralean ere, bes-ta giroa izan zen nagusi, batez ere arrats partean. Larunbatean, berriz, arratsaldean haur-erentzako tartea izan zen eta beraien disfrazak erakustez gain, lehiaketan parte hartu zuten. Gauean, gau giro ederrak lagunduta, jendetza haundia ibili zen herrian; gorapean, Jalisko

Band taldeak musika jartzen zuen bitartean, jendeak ostatuak gainezka bete zituen. Eguraldi ederra probetxuz, kanpoan ere giro bikaina sortu zen.

Igandean, pilotalekuan ere jendetza izugarria bildu zen, iñauteri hauetan ikusmin gehien piztu duen ekitaldia ikustera. Eguerdiko 12,30etan hasi ziren pilota eta herri kirol apostuak. Bertan, herritarrek eta bertsolariak osaturiko taldeak elkarren kontra aritu ziren. Pilotan herriko bikoteak irabazi zien Mikel Mendizabal eta Xabier Euzkitze bertsolariei, 22 eta 19. Izerdi patsen artean, tantu ikusgarriak ere ikusi zen. Herrikoek Angel mari Peñagarikano izan zuten botillero eta bertsolariek,

berriz, Aitor Mendiluze. Erran beharrik ez da aholkuak bertsotan erraten zizkietela. Herri kirolean, bi taldeak hagit parekatuak ibili ziren eta Sebastian Lizaso arpanan aritzen ikusteko modua izan zen. Lizaso beraren taldeak irabazi zuen. Kirol kalitatearekin sartu gabe, onena umorea izan zen.

Kirol saioa akautzean, bertsolariak Aterpeko bertso-bazkarira joan ziren. Bertso saioa arratsaldea bitarte luzatu zen. Mikel Mendizabal, Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Jokin Sorozabal, Millan Telleria eta Xabier Euzkitze aritu ziren.



Euzkitze eta Menzizabal, Mendiluzeren aholkuak jasotzen eta Oskar de Rueda eta Joxe Migel Errandonea Peñagarikanoenak. Azken honek hobeak izanen ziren, herritarrek irabazi baitzuten. TTIPI-TTAPA TB

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

EKAITZA
 Hostala • Kafetegia
 Gelak TB eta bainuarekin
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

LEGARRA
 Legaitrea, 9 • ☎ 948 637 030 • **LESAKA**

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

**KUKUXUMUSU
 KAMISSETETAN**

%20eko DESKONTUA
 (Apirilaren 15 bitartean)

PIKABEA
 Molinero drogerian *pinturak*
 galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
 ☎ 948 630 054
 Altzateko Plaza, 2
BERA

SUNBILLA

Herriko etxea moldatzeko lanek 45 milioi pezetako aurrekontua dute

Denborarekin, medikuaren kontsulta eta botika bertan antolatzeko asmoa dago

JAIONE ETA ALBA

Herriko etxea moldatzeko lanak Donostia-ko Asfaltos Naturales de Campezo enpresak egingen ditu. Lanaren aurrekontua 45.046.622 pezetakoa da. Halere, Jose Mari Hernandezena alkateak onartu duenez, «gauza batekin eta bertzearekin 50 milioi inguruko gastua izanen da». Herriko Etxea kanpotik eta barrenetik moldatuko da. Barnean, idazkariaren bulegoa, alkatearen bulegoa eta batzar aretoa moldatuko dituzte. Momentuz, Herriko Ostatuan konponketak egin gabe utziko dira eta denborarekin, medikuaren kontsulta eta botika ere He-

erriko Etxeko gelaren batean jartzeko asmoa dago. Halere, oraindik onartu gabe dago hori.

Moldaketa lanak egiteko, udal bulegoko tresnak eta paperak behar diren eskolara eramaten ari dira. Kontratuaren arabera urte terdiko epea izanen da lanak akitzeko, baina alkateak urte batean burutuko direla espero du.

Asteburu Kulturala martxoaren 24tik 26ra ospatuko da

Antzakaitz Kultur Taldeak antolatutako Asteburu Kulturala martxoaren 24, 25 eta 26an. Ekitaldi gehienak lotuak baldin badaude ere, egitarau zehatza etxeko banatuko da.

TTIPI-TTAPAN ere horren berri agertuko da hurrengo alean.

Arrigazteluko lanetan aritzeko langileak behar dira

Larrakaitzeko tunel eta errepide zati berria egin ondotik hasiko diren Arrigaztelu inguruko lanetan aritzeko jendea behar omen da. Bi kilometroko bide berria egingen da, 200 metroko tunela eta zubia barne. Lanean ari nahi duenak Zubigain etxera joan behar du, Latsako eskola zaharraren ondoran.

Ariztigain kanpina zabaldu dute

Udaberria gainean dugu eta horren seina-



Herriko Etxea kanpotik eta barrenetik moldatzeko urte terdiko epea izanen da. Artxibokoa

le garbia da igande honetan Ariztigain kanpina zabaldu dutela. Urteroko ohitura ez galtzeko, txokolatea banatu zuten bertara hurbildu ziren guzieren artean. Asteotan martxa hartzen joanen dira, Aste

Santuko bisitari uholdearen esperoan.

Botika lekuz aldatua

Botika lekuz aldatu dute eta joan den urtera arte Bibi janaridenda zenekoan jarri dute.



MARTIKO
Gure baserrietako
produktuak

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

haurrendako
zapata denda

JUP oinetakoak

Merkatarien karrika, 21 • **DONEZTEBE** • © 948 451954

BEINTZAko
OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

DONEZTEBE

Udal liburutegiak 208 liburu hartu ditu sari bezala haurren irakurmena bultzatzeagatik

Neska-mutiko ttikienei zuzendutako «Ipuin Ordua» proiektua saritu dute

PATXI IRIARTE

Liburu, Artxibategi eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusia erakundetik Doneztebeko Liburutegiak liburu sorta ederra hartu du. Sari honekin haurren irakurmena bultzatzeko liburutegi honek egiten duen lana saritu nahi izan du aipatutako erakundeak. 208 liburuk osatzen dute liburu sorta hau eta gehienbat haur eta gazte literaturakoak dira, hala nola zazpi hiztegi. Liburu hauen prezioa 175.000 pezeta ingurukoa da. Sari hau eskuratzeko liburutegiak aspalditik martxan duen irakurmena bultzatzeko proiektua aurkeztu zuen. Proiektu hau *Ipuin Ordua* da eta 3, 4 eta 5 urteko haurrei eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzenduta dago.

Aipatu behar da Nafarroa hamar liburutegi sarituak izan direla eta honek azaltzen du zer apustu egiten den liburutegi publikoetan



Udal kiroldagiko lanak bizi-bizi ari dira egiten

Denbora guttiren barrenean dexente aitzinera egin dute Doneztebeko udal kiroldagiko lanek eta dagoeneko izanen duen egitura nabarmen gelditzen ari da. Mariezkurrena enpresak 108 milioi pezetaren truke eginen ditu lanak. 46 metro luze eta 30 zabal izanen ditu eta kantxa, aldagelak, komunak eta bertze zenbait gela eraikiko dira. Gainera, 400 ikuslerendako harmailak eginen dira.

irakurketa bulkatzeko. **Barrikotea La Union Kasinoan**

Joan den hilabete-koak izan zuen arrakasta ikusita, La Union Kasinoak bertze barrikotea bat antolatu du martxoaren 18rako, San Jose bezperarako alegia. Kasino bazkideek eta la-

gunek parte hartzen ahal dute eta horretarako martxoaren 15a baino lehen eman behar da izena. Halere, lehenbailehen apuntatzea komeni da, mahaiak segidoan betetzen baitira. Azkeneko aldian bezala, prezio berezian sagardotegiko menua eskainiko

da. **Arraultze delikatuak Kaxernan**

Larunbat honetan, martxoak 11, antzerki emanaldi interesgarria izanen da Kaxerna osatuan. Hika taldeak «*Arraultze delikatuak*» antzeslana eskainiko du.

Martxoaren 25erako, berriz, K II taldearen kontzertua iragarria dago. Kaxerna osatuetan hainbat emanaldi eskaini ditu aste hauetan: Txan Haundia magoaren ikuskizuna, kontzertuak, malabaristak inäuterietan...

Titi Ostatua futbito txapelketaren finalean berriro

Azken bi urteetan bezala, Titi Ostatua izanen da Baztan-Bidasoko futbito txapelketaren finalean. Finalerdiko derbian, 6 eta 3 irabazi zioten Hamabi Ostatuari. Igande honetan, martxoak 12, arratsaldeko 6etatik aitzinera jokatuko da finala eskolako pilotalekuan. Bertze urteetan bezala, arerioa baztan-darra izanen dute, Sas-karrak taldea.

Martxoaren 2an odola eman zuten Donezteben

Nafarroako Odol Emailde Elkartearen ibilgailua Doneztebeko Osasun Zentroaren aitzinean egon zen mar-

Laister zabalik!

ANTOJOS

boutique pre-mama

Arbelaz Jauregia
Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

Iberrula Martxoan
Haurrendak orvegi
0-14 urte
Prestak 1000, 6 - Donostia
943 62 13 00

MERKEALDIAK
% 50a bitarteko deskontuak

Merkealdia
LENTZERIA

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

ola
SAGARDOTEGIA

250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegi menua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel: 943 623 130

➔ **MALERREKA**

Emakumeen borroka eta konpromezua 1936ko Gerran eta erbestean solasgai

Ezpelura elkarteak antolatu du martxoaren 13ko hitzaldia

TTIPI-TTAPA

«Emakumeen borroka eta konpromezua Espainiako Guda Zibiletik erbestera» izeneko solasaldia antolatu du martxoaren 13rako Malekrekako Ezpelura Emakume elkarteak. Ekitaldia arratseko 8etan hasiko da, Ezpeluraren Azkarretako lokalean.

CALIFORNIAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA SOLASEAN

Ezpelurak gonbidatu berezia ekarriko du solasaldia ematera: Josebe Martinez, California State Unibertsitateko irakaslea eta USAC eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bitartaria. «Gaur eguneko emakumeei bidea urratu zigutenei omenaldia eskaini nahi diogu solasaldi honekin, beraien bizipenen berri jakinez».

Solasaldi honekin



Leizako Emakume Abertzaleen Batzaren lokala inauguratu zeneko irudia. Emakumeen borroka eta konpromezuari buruzko informazio gutti eskaintzen digu historia ofizialak. Artxibokoa

akituko dira Ezpelura elkarteak Emakume Langilearen Egunaren inguruan antolatutako ekitaldi-sorta. Mar-

txoaren 5ean «Pekin 36.002» antzerki emanaldi eskaini zuen Trokolo taldeak Doneztebeko zineman eta mar-

txoaren 8an gorputz lengoia eta elikadurari buruzko solasaldi interesgarria eman zuen IPESeko Llanos Pardo siko-

logoak Doneztebeko lokalean. Solasaldiaren ondoren afaria izan zen Gazteluko posadan.

➔ **BEINTZA-LABAIEN**

Bezkingo erreka bideratuko du Udalak

Harri haundiekin hartuko da erreka bazterra

Beintza-Labaiengo Udalak Bezkingo erreka bideratuko du. Herriko igarotzen denean, lurra eramaten du eta bi etxebizitzetako zimenduak ahultzen joateko arriskua dago. Horrega-

tik, lana egiteko baimena eman du Confederación Hidrográfica de Aguas del Norte erakundeak.

Lehendabiziko lana erreka garbitzea izanen da. Horretarako, sasiak,

belarrak eta urak ekarritako harri xeheak kenduko dira. Gero, 30 metro luzerako zuloa egingen da erreka eskuintaldean, bertan egindako paretaren zimenduak jartzeko. Pareta



Erreka garbituko da lehenbizi, sasiak, belarrak eta urak ekarritako harri xeheak kenduz. Artxibokoa

harri haundiekin egindako 300 kilo gutxienez eta ez da ormigoirik era-

biliko. Gehienez ere metro terdiko altuera ematen zaio paretari.

BERTIZ

Moldaketa lanek irauten duten bitartean parkeko lorategia itxia egonen da

Aste Santurako irekitzea espero dute

TTIPI-TTAPA

Paisaia hobetzeko lan batzuk egin behar direla eta, otsailaren 24tik aitzinera ezin da bisitaririk sartu Bertizko Parkeko lorategian. Hori bai, bertze instalazioetara –interpretazio zentroa, jauregia...– sartzeko ez dago inolako arazorik.

Lan hauek Nafarroako Gobernuako Ingu- rugiro Departamenduak bultzatu ditu eta Bertizko Partzuergoaren babes osoa du. Aste Santurako ireki ahal izatea espero dute.

Bertizko lorategia moldatzeko lehen proiektua 1996. urtean idatzi zen, baina ez da gaur arte gauzatu, «lorategia sortu zuen Pe-

dro Zigaren borondatea betetzeko helburuarekin» Ingu- rugiro Departamenduaren erranetan.

Joseph Andueza paisai- egilearen agindupean, lorategia berrantolatatu egingen da. Bere ikerketak «*esku hartze- ko beharra*» azpimarratu zuen. Lorategia so- bera bete zegoen, «*bai sustraiez bete zegoelako, baita zuhaitz eta zuhaixa mota endemi- koak zeudelako*».

Pedro Zigak 1949. urtean eman zion lora- tegia Nafarroako Dipu- tazioari eta orduan he- rrialde ezberdinetatik ekarritako 126 zuhaitz klase berezi zeuden. Ge- rozтик, ordea, jardina ez da ukitu. Espezie batzuk sobera hedatu dira eta



Lorategia itxia egonen bada ere, interpretazio zentroa, jauregia eta bertze instalazioak zabalik mantenduko dira.

Artxibokoa

bertze batzuk berez sor- tu dira. Garai bateko lo- rategia, oihanean bihur- tu dela erraten ahal da. Ondorioz, zuhaitz ba-

tzuk moztu eta bertze batzuk kimatu egingen dira. Zehazki, lorategian dauden 384 zuhaitzeta- tik 110 moztu egingen di-

ra eta gainerakoak ho- betzeko tratamendua ja- soko dute. Bertzalde, lo- rategiaren inguru gu- zian ureztapen-sistema

Merkatarien Elkarteko lehen zozketa egin zen otsailaren 29an

50.000 pezetako erosketa bonoak Elizondoko Helena Leiza eta Arantzako Pili Bidegararendako

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoko Merka- tarien Elkarteak «He- men bizi, hemen ero- si» kanpainaren bar- nean otsailaren 29an egin zuen lehendabi- ziko zozketa. 50.000 pezetako bi erosketa bonoen saridunak Eli- zondoko Helena Lei- za eta Arantzako Pili

Bidegarai izan ziren. Bertzalde, 36 opari ere zozketatu ziren. Ondoko koadroan agra- ri dira opari hauen irabazleak eta, ondoren, opari hori bildu behar duten denda.

Oraingoan saririk lortu ez dutenek aitzina- go ere izanen dute bertze aukerarik. Oraindik martxoaren 31 arte segituko du

kanpainak. Beraz, Par- tzuergoko denda gu- zietan erosketa haun- di xamarra egiten de- nean bonoko koadro- etako batean kuño bat paratzea eskatzen ahal da. Hurrengo zozketa apirilaren 11n egingen da Bertizen eta orduan, 50.000 pezetako hiru erosketa bono emanen dira.

Maite Maritorea (Elizondo)	Altzuri sukaldeak (Bera)
Karmen Benito (Elizondo)	Belen lored (Doneztebe)
Igone Salaberria (Sunbilla)	Telletxea arg. (Lesaka)
Amairuko Eskola (Amairu)	Nafarroa (Bera)
Kepa Lazaro (Elizondo)	Beatriz ileap. (Doneztebe)
Rosario Etxandi (Elizondo)	Radio Bidasoa (Bera)
Isabel Zubieta (Lesaka)	Sorozabat gox. (Doneztebe)
Jesus Anbustegi (Elizondo)	Txiki's arropa. (Elizondo)
Petra Barragan (Elizondo)	Esarte harat. (Elizondo)
Fco Javier Escudero (Elizondo)	Ostiz etxea (Doneztebe)
Maribel Iparragirre (Elizondo)	Itxaso arrain (Doneztebe)
Leiza ostatua (Lesaka)	M ^a Luz Sport (Bera)
Maria Buzarra (Elizondo)	Ferr. Quevedo (Elizondo)
Maite Maritorea (Elizondo)	Elordi liburu. (Elizondo)
Ignazio Garmendia (Elizondo)	Amaia ileap. (Doneztebe)
Intza Ostatua (Elizondo)	Ana janaridenda (Lesaka)
Iñaki Eskudero (Iruñea)	Legarra liburu. (Lesaka)
M ^a Carmen Zubieta (Lesaka)	Zaldua arg. (Doneztebe)
Oliva Tapia (Lesaka)	Ipingi (Elizondo)
Cynthia Ibarra (Narbarte)	Goya (Bera)
M ^a Pilar Azkarate (Azpilkueta)	Virgilio oinet. (Elizondo)
Maite Iriarte (Lesaka)	Zubiondoa B. (Dantxarinea)
Isabel Ibarrola (Elizondo)	Telletxea moble. (Doneztebe)
Paula Lejarda (Elizondo)	Zunzarren Ges. (Elizondo)
Maribel Pecina (Elizondo)	Ansalsal janair. (Etxalar)
Martina Bereau (Sunbilla)	Goiko argazki. (Bera)
Sole Obregozo (Elizondo)	Arrieta erloju. (Elizondo)
Pilar Biguria (Iruñea)	Igone liburudenda (Bera)
Intza Ostatua (Elizondo)	Licores Baztan (Arizkun)
Isabel Gaztelumendi (Elizondo)	Ibaiondo janari. (Lesaka)
Rosa Mendiburu (Elizondo)	Kiliki eskulanak (Elizondo)
Carmen Santxotena (Elizondo)	Iparla Kirolak (Elizondo)
M ^a Luisa Goñi (Elizondo)	Arturo Iglesias (Bera)
Pakita Oteiza (Elizondo)	Ayla argazkidenda (Bera)

GOIZUETA

Bide publikoak erabiliz kamioietan egurra ateratzen duenak ordaindu beharko du

Biltzen den dirua bideak konpontzeko erabiliko du Udalak

ESTEBAN AROZENA

Udalak onartu berri duen «Bide Publikoko eta herri lurretako Zorru, hegaldura eta zorupeko probetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantzak» dio, besteak beste, probetxamendu ekonomiko batekin herriko bideetan barna kamioietan egurra ateratzen duenak, metro kubikoko 125 pezetako tasa ordaindu beharko duela. Esplotaziorako baime-na eskatu ondoren mendizainak eginen duen tasazioaren arabera izanen da ordaindu beharrekoa. Tasa honen bidez biltzen den diru kopurua bideak konpontzeko erabiliko omen du Udalak.



Indar-Gorrik luzapenean irabazi zuen aurtengo txapelketa.

Indar-Gorri nagusi futbito txapelketan

Indar-Gorri taldea da aurtengo futbito txapelketaren irabazlea

otsailaren 26an Kiliku-Aren kontra jokaturako final ikusgarriaren ondoren. Aurrez araututako denbora hirunako

berdinketarekin bukatu zenez, luzapena jokatu beharrean aurkitu ziren, eta hemen, Indar-Gorrikoen maisutasuna na-

gusitu zen 5 eta 4 irabaziz azkenean.

Aurten ere hagitx arrakastatsua izan da Umore Onak antolatutako txapelketa hau, herriarrez osatutako sei taldek parte hartu baitute bertan. Bukaera ere, aipatutako finalaz gain, ezin hobea izan zen, afaltzera gonbidatu baitzituzten antolatzaileek parte hartzaile guztiak.

ARANO

Tintapolo oihan berritzeko laguntza

Aranoko Tintapolo oihan berritzeko %50eko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Insignisak, izeiak eta haritzak landatuko dira inguru horretan.

ARESO

Herrialde pobreen zorrari buruzko inkesta eginen da

Martxoaren 12an gai honen inguruko kontsulta soziala eginen dute Areso eta Leitzako parrokiek

JUANA M^a SAIZAR

«Kanpo zorra Aski da!» lempaean Areso eta Leitzako parrokiek Jubileo urtearen barreraren arazo sozial honi aurre egiteko asmoa dute. Nazio aberats edo nazioarteko erakunde eta bankoek emandako maileguak direla eta, 84 herrialde pobreenek

daukaten zorra 330 bilioi pezetakoa zen 1997an. Urte hauetan, gero eta gehiagora joan da. Herri behartsu hauek beren garapenerako hartzen dute laguntza, baina lau aldiz gehiago behar dute interesak ordaintzeko. Nafarroan, beste 180 erakunde eta Gobernuak Kanpoko Erakundeekin (ONG)

batera, hau eskatu nahi dute parrokiek: «*martxoaren 12ko kontsulta sozialean parte har ezazue, behartsuek eskertuko dute eta*». Inkestamahiak jarriko dira Areso eta Leitzan.

Sokatira taldea

Sokatira taldeak zilarrezko domina ekarri du Holandako Mundu-



560 kilotan Nafarroako txapela eta Munduko zilarrezko domina izan dira aurten sokatira taldearen emaitza aipagarrienak. Argazkia: Aitor

ko txapelketatik. Nahiz eta Euskal Herriko txapelketan pentsatu bezain ongi ez ibili, bere sasoi punttua erakutsi dute Munduko txapel-

ketan. Ongi etorri xamurra eskaini zieten herriarrek, dantza, bertso, trikitixa eta pintxoekin, nekaldia pixko bat goxatzeko.

Euskararen tunela herrian izanen da martxoaren 14tik 19ra

Bestalde, 220 milioiko inbertsioa egingen da kiroldegi berrian

JOSEBA AZPIROZ

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak herriz herri daraman Euskararen tunela karpa Leitza izanen da martxoaren 14tik 19ra. Asteartean, martxoak 14, karpa montatuko da eta inaugurazio-aurkezpena egingen da, hamaiketako batekin.

Asteazken goizean, institututik bisitaldiak egingen dira erakusketara. Arratsaldean erakusketa zabalik egonen da eta euskararen ofizialtasunari buruzko hitzaldia eskainiko da. Ostegunean ere egitarau berdintsua izanen da: goizean institututik bisita eta arratsaldean erakusketa eta hitzaldia. Ostiralean, afaria egingen da.

Larunbat goizean irekiko da erakusketa eta gauean rock kontzertua izanen da Etsaiak, Xuia eta beste talde batekin. Igandean, azkenik, Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoek emanaldia eskainiko dute.

Institutuko taldeez gain, euskaltegiarekin eta jubilatuekin hitz egingen da, erakusketara taldetan etor daitezten. Horiez gain, aukera hori emanen zaio herriko edozein talde edo elkarteri.



Depuradoraren funtzionamenduari buruzko informazioa etxez etxe banatu du Udalak

Udaleko Ingurugiro Batzordeak, herriko araztegi edo depuradoraren funtzionamenduari buruzko informazioa etxez etxe banatu du. Bertan, tratamendu biologikoaren berri ematearekin batera, komunetik edo arraskatik bota behar ez liratekeen eta araztegiaren biltzen dituzten hainbat zabor aipatzen dira. Horretaz gain, araztegi herriko ur-kolektoreetako ur-zikinak bakarra doazenez, hainbat ohitura aldatzeko beharra agerian uzten dute (kotxeak kalen garbitzea, kanterila zulora ura, detergente eta lejiarekin botatzea, etab.)

648 milioi pezetako udal aurrekontua ahobatez onartu da

648.888.211 pezetako diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurturten Leitzako Udalak, azken batzarrean EH, EA eta UIL taldetako zinegotzi guzietan ahobatez onartutako udal aurrekontuaren arabera. Inbertsiorik handiena eskola eta igerilekuaren artean kokatuko den kiroldegi egingen da, 220

milioi pezeta. 90 milioi pezetako dirulaguntza jasoko da Nafarroako Gobernutik eta gainerakoa ordaintzeko maillegua eskatuko du Udalak. Herriko Etxea moldatzeko 21 milioi pezetako inbertsioa egingen da.

Hurtzaindegian izena emateko epea zabalik

Hurtzaindegirako haurren izena emateko epea martxoaren 19an ireki eta apirilaren 19an bukatuko da. Urtero bezala, ikasturtea irailan hasiko da eta aurturten, 9.500 pezeta ordaindu beharko dira hileroko. Haurren izena emateko, hurtzaindegira joan eta

honako datu hauek eman beharko dira: haurraren izena eta jaioterria, gurasoen izen abizenak eta hileroko kuota kobratzeko banku edo aurrezki kutxaren kontu zenbakia. Datorren urteko ilbeltza baino lehen 3 urte betetzen dituzten haurrek ezin izanen dute hurtzaindegira joan eta irailan hasi behar dutenek 18 hilabete beteak beharko dituzte eta gazteagoak direnak ilbeltzean hasiko dira, baldin eta 18 hilabete badituzte.

Nitxoaren zozketa

Otsailaren 23an egingo dako 32 nitxo berrien zozketarako 86 lagunek izena eman zuten.

flash

Plazaola

Tomas Azpiroz alkatea eta Eleni Zabaleta zinegotzia Plazaola Partzuergo Turistikoko beste ordezkari batzuekin batera, Espainiako Gobernuko Ingurugiro Zuzendari Nagusiarekin bildu ziren hilaren batean Madrilan, Uitzitik Gipuzkoako mugara trenbidea bide berde bezala moldatzeko behar diren 325 milioiak eskatzeko. Lehenberritik Uitzira berritzeko kostua, Estatu Gobernuak ordaindu zuen, %100ean.

Leitzako Zinema

Ostiralean
10,30etan

Larunbatetan
7,30etan

2000-03-10/11

Un marido ideal

2000-03-17/18

Solas

2000-03-24/25

El coronel no tiene quien le escriba

Goizuetako ISKIBI kanpina
errentan ematen da
ekainaren 15etik irailaren 15era

Interesatuak deitu

☎ 948 514033 • 948 514073

BAZTAN

Odol emaileek urteko besta egin zuten otsailaren 27an Elizondon

Bederatzi domina eta Zilarrezko ttantto bat banatu ziren

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 27an burutu zen Elizondoko Santxotena jatetxean Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Odol Emaileen urteko elgarretaratzea. Bazkal ondotik, urteko diru-kontuen eta odol-emate kopuruen berri eman zen. Gan den urtean 130 odol litro eman zuten 334 emailek. Gaur egun 393 odol-emaile daude Baztanaldean, 203 emakume eta 190 gizaseme.

Odol emaileen artean Urrezko bi domina, zilarrezko zazpi eta zilarrezko ttantto bat banatu ziren. Urrezko domina 50 emanaldi eta zilarrezko domina 25 emanaldi egin dituztenei eskaintzen zaie. Zilarrezko ttanttoa, berriz, 50 emanaldi bereziatarra ailegatu direnei. Urrezko domina Elizondoko Rafael Diaz Martinez eta Fernando Gonzalez Uriartek jaso dute. Zilarrezko domina honako zazpi lagun hauek jaso dute: Pedro Jose Arteta Berasategi (Elizondo), Emilia Azkarate Iantzi (Aniz), Francisco Miguel Etxamendi Lazaro (Elizondo), Ramon Lizasoain Adansa (Elizondo), Juan Oteiza Indakoe-txea (Arraioz), Jose Ra-



Elizondoko ekitaldian dominak eta ttanttoa jaso zutenak, bertze odol emaile batzuekin batera.

Argazkia:

Zaldua

mon Sarratea Elizaintzin (Almandoz) eta Jose Mari Mugika Jauregi (Elizondo). Zilarrezko ttanttoa Elizondoko Jesus Mari Eugi Eugientzat izan da. Hori aurtan emanen direnak, baina guzira domina aunitz banatu dira Baztan aldean: emaile haundientzako (75 emanaldi) hiruro domina; urrezko domina bikoitz bat (40 litro baino gehiago);

urrezko 31 domina, zilarrezko 131 eta orain, zilarrezko ttanttoa.

Txuma Uriz da herriko arduraduna. Odola emateko interesa dutenek 948 580828 telefonora deitu behar dute.

Oronozko saihebideari alegazioak

Aitzineko alean aipatu genuen bezala,

Oronozko saihebidearen egitasmoa onartu du Nafarroako Gobernuak. Florentino Goñi alkatea gustora agertu da, «batzarrak eta Balleko Udalak eskatutako proiektua onartu baitute», baina alegazioak aurkezteko asmoa ere azaldu du: «Batez ere bideak kontserbatu eta berritu nahi ditugu: elizatik mendi aldera ateratzen dena edo plaza ondotik ateratzen dena, adibidez». Horretaz gain, saihebideko lanek Zozaiatik Mugairira doan ur tuberia hartuko dute eta hori nolabait konpontzea eskatuko dute Oronoz-Mugairitik aurkeztuko diren alegazioek.

Martxoaren 2an, Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuko ordezkariak joan ziren Oronozera, alkateari saihebidetako proiektuaren berri ematera. Askapeko irteeran ikuspen arazoren bat izanen zela uste bazuten ere, teknikoek azalpenak adituta ez dela horrelakorik izanen uste du Florentino Goñik. Oronozko alkateak jakinarazi duenez, «alegazio guztiak aurkeztu eta Boletinean argitaratu ondotik, urte hondarrean adjudikatuko dira lanak».

flash

Igelak hartzen harrapatu zuten Erdiz errekan...

Erdiz errekan igelak hartzen ari zela Eurgiko lagun bat harrapatu zuen Udaltzaingoak. Hauen autoa ikusi zuenean, zaku bat hustu omen zuen eugitarak. Hamar igel topatu zituzten leku berean udaltzainek eta Ingurugiro Departamentuaren denuntzia sartu dute.

...eta orkatz eta urtxintxa batekin Belaten

F.A.M. baztandarri milioi terdi pezetako isuna ordaintzera behartzen ahal dute, Belaten orkatz eta urtxintxa bat ehizatariak ondokit. Ehiztariak erran zuenez basurde ehizian zebilela bota zituen bi animaliak. Orkatza iraila eta urrian bakarrik hartzen ahal da eta urtxintxak ehizatzea debekatua dago.

Amaiurko elizan kantaldia San Jose egunean

Amaiurko Gaztelu elkarteak antolatuta kantaldia izanen da martxoaren 19an, igandea, arratsaldeko 4etatik aitzinera, Amaiurko elizan. Erramun Martikorena, Eneko Labeguerie, Gaztelu taldea eta Amaia Rioussperius izanen dira kantari.

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • © 948453060

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

MENDI
OSTATUA

Santiago 25 • © 948 580313
ELIZONDO

BAZTAN

Garai bateko Elizondoko Emakunde Eguna berreskuratu du Jo ala Jo taldeak

Herri ezberdinetako iñauterietako ohitura, janzkera eta dantzak karrikaratu zituzten

TTIPI-TTAPA

Ihaute egunak ospatu dira han eta hemen. Aspaldiko ohitura izanik, herri batzuetan duela hogeit bat urte berreskuratu ziren Orakunde, Emakunde eta Gizakunde egunak. Elizondo aldean, berriz, Jo ala Jo taldeak eta Erratzuko kultur taldeak ikuskizun polita eskaini zuten otsailaren azken aste hondarrean, Emakunde Eguna berreskuratuz. Herri ezberdinetako ihauterietako pentsonai, janzkera eta ohiturak hartuz karrikaz karrika ibili ziren otsailaren 26an, musika doinuak eta dantzak eskainiz. Elbeten bazkaldu ondotik, Elizondora itzuli arratsaldean. Mozorro beltzak (hartza, Jantzilo...) eta mozorro zuriak atera ziren.

Patxi Larralde, Jo ala Jo taldeko kideak adierazi duenez, «lehenago, iñaute aitzineko ortzegunean hasita, Gizakunde, Emakunde eta Orakunde ospatzen ziren. Gizakunde egunean



Herri ezberdinetako ohitura, jantzi eta dantzak erabili dituzte Jo ala Jo taldekoek Emakunde Eguna berreskuratzeko. Argazkia: Idoia Gillenea

an gizasemei opariak egiten zitzaizen eta Emakunde egunean emakumei. Gaur egun Erratzun bakarrik mantentzen da. Gizakunde eta Emakunde egunean puska biltzen aritzen dira Erratzuko haurrak».

Iñauterietako puska biltzea egiteko ikerketa lana ere egin dute Jo ala Jo taldekoek, adineko jendeari galdetuz eta horren interpretazioa eginez. Garai ba-

tean eskea mozarrotuta egiten zela uste dute eta horren adibide gisara sagar dantzan egiten zen aspaldiko kantua gogoratzen dute: «Manteline buruko, erreala boltsako». Sagar dantza horri musika jarri diote eta koreografia sortu dute.

Jo ala Jo taldean Baztango Gazte Asanbladako kideak, kirikoketariak eta bertze gazte jendea bildu da, Baz-

tango ohitura zaharrak berpizten eta indartzen joateko asmoz. «Orai iñauteak hartu ditugu, ekainean ere zerbait egiteko asmoa dugu eta urrian kirikoketa besta sendotu nahi dugu» dio Larraldek. Lanean zortzi-hamar pertsona ari dira, «baina gure lagunekin eta solasten dugun bertze batzuekin, jende kopuru polita mugiarazten dugu gisa honetako egunetan».

Pentsoria

San Francisco Javier eskolako ikaslea saritua suertatu da Iñigo Arista Marrazki Lehiaketan

Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxe Publikoko Claudia Alvarez de Eulate Zayas, seigarren mailako ikasleak Iñigo Arista erakundeak antolatutako marrazki lehiaketan sari bat lortu du. Aurtengo edizioan 166 ikastetxek eta 4.459 ikaslek parte hartu dute, haien artean berrogeita hamar sarituak izan direlarik. Claudiak berak egindako eskurtsio bati buruzko marrazkia aurkeztu zuen.



Claudia Alvarez de Eulate

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

MERKEALDIAK
ERNE!

Denboraldiko arropak merke-merke

IÑAUTERIETAKO TELETAN AUKERA
ESKULANERAKO MATERIALAK



121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

Bixente Garcia presoaren aldeko afaria larunbatean Omordiako gelan

Herri Urrats bezperako gaupasa Gaztetxeak antolatuko du


ANA MARI ETA FRED

Urte guziz bezala, Bixente Garcia herritar presoaren aldeko afaria iraganen da aurten ere. Hitz ordua larunbat hunkako, martxoak 11, finkatua da, Omordiako ikusgarrien gelan. Txartelak oraindik eros daitezke Herriko Etxeko edantegian. Bertalde, azken aste hauetan abiatu dinamikari segituz, gure eskualdeko preso politikoen aldeko ondoko elgarretaraztea ortziralean, martxoak 10, egingen da Azkaine-ko plazan.

Euskal preso politikoen aldeko plataformak bilkura publiko antolatu du datorren martxoaren 17an. Kari hortarat preso ohi bat, abokatu bat eta preso baten familiako norbait gomitu dituzte, presoek eta beren familiek pairatzen duten egoeraren berri eman dezaten. Informazio bilkura hori deneri idekia da, eta nahi dutenek galderen egiteko parada izanen dute.

Pasaka eta esku huskako pilota kontuak

• **Pasakako Euskal Herriko xapelgoa:** Otsailaren 15ean, Hazparneko trinketea Pa-



Urtero bezala, Bixente Garcia herriko presoak gogoratuko da afari baten bidez.

Artxibokoa

sakako Euskal Herriko finalak jokatu ziren. Sarako Izarrako Mattin Arrieta eta Jean Jacques Elizeri genituen finalak jokatzeko. Hendaiako Calvet eta Lurok 13 joko eta 11 irabazi zieten saratarrei. Orain, Arrieta eta Elizeri Frantziako erdi finalerako sailkatuak dire.

• **Eskuzko Euskal Herriko xapelgoa:** Es-

ku huska saratar frango ari dira buruz buruko lehiari. Hala nola lehen mailan Tito Mariluz. Hirugarren mailan Pierre Arotzarena, Ramuntxo Errandonea, Christophe Saint Jean eta Mattin Joanena. Junior mailan, Xabi Errandonea, Patrick Mariluz eta Xan Urbistondo. Benjamin mailan binaka aritzen dire eta otsailaren 27an

Iñaki Jauregi eta Jon Paternek 40 eta 13 irabazi zieten erdi finalerako Mauletarrei.

Sara Korrika elkarteak

Duela hilabetezko TTPI-TTAPAN aipatzen diren Sarako Izarra Atletismoa elkarteak sortu zela. Elkarrekin hain behartua izan da izenez aldatzea, Frantzian Evin Legeak debekatzen baitu alkohol-dun edari baten izena erabiltzea kirol munduan. Elkartearen izen berria Sara Korrika da.

Herri Urrats bezperan gaupasa Saran

Sarako Gaztetxeak jakinarazten du, usaiari bezala, Herri Urrats bezperan Gau Pasa izanen dela Saran, bezperatik Senpereko bidea hartuko dutenentzat. Aurten ez du Herri Urratsen antolatuko, gualdi horren antolaketa Gaztetxeak berak hartzen du bere gain eta on-

doko aldizkarietan eman dugu egitarauaren berri.

Sarako kantariak bulego berria

Aurten, Sarako Kantarien elkartearen bulegoa aldatu da. Hala nola, Jean Laborde lehendakari izendatua izan da; Guy Thibault diruzain eta Yvonne Conte idazkari. Pierre Kamino segitzen du taldearen zuzendari gisa. Erran gabe doa kantuz aritu nahi duen edozein ongi etorria izanen dela taldean.

Leon kasua

Otsailaren 25ean, Leon kasuaren auziari buruzko informazio bilkura bat egin zen. Militante abertzaleen abokatuek diotenez ahalkegarria da orain dela 17 urte desagertutako Popo Larre, IKko militantea jujatu nahi izatea. Hain xuxen hori izanen da abokatuen helburuetako bat, erran nahi baita argitzea nork desagertarazi zuen Popo eta justizia egitea. Ondoko egunetan jujatuak izanen diren bertze militanteak hauek dira: Gabi Mouesca, Filipe Bidart eta Ttotte Etxebeste.

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...



KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

Ingurugiroko boluntarioen lana sustatzeko plana onartu du Nafarroako Gobernuak

Bolondresen lanak ingurugiroa hobetzeko duen garrantziaz kontzientziatu nahi du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 2000-2003 aldirako Ingurugiroko Bolondres Lana Sustatzeko Plana onetsi zuen otsailan egindako bilkuran. Plana Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak egina da, gisa honetako ekimenak garatzeko interesa duten bertzeko erakunde batzuren laguntzaz (Nafarroako Mendizaleen Federazioa, Gurutze Gorria-Nafarroako Gazteria edo Nafarroako Eskaut Katolikoan Elizbarutiko Ordezkaritza, bertzeak bertze).

Bi helburu nagusi ditu plan honek. Alde batetik, bolondres lana egiteak ingurugiroa zaintzeko eta hobetzeko duen garrantziaz kontzientziatu nahi du Nafarroako gizartea. Horretarako, informazio

eta kontzientziazio kanpainak egin eta jardunaldiak eta eztabaidalekuak antolatu nahi dira. Bigarren helburu gisara, ingurugiroko bolondresen elkarteak sortu eta sustatzea eta eraturik dauden bertze erakundeetan bolondres lana sartzea dago.

ASTI LIBREAN ETA DIRUA IRABAZTEKO ASMORIK GABE EGINDAKO LANA

Planak duen definizioaren arabera, ingurugiroko bolondres lana hauxe da: ingurugiroa hobetzeko eta natur baliabideak zaintzeko lan zuzenak garatzen dituzten gizarte-ekimenak, beti ere modu altruistan, libreki eta irabazteko asmorik gabe eginak. Ekimen hauek, ongi egituratutako proiektuen barne egon behar dute eta eragin ona izaten ahal dute in-



Erreka bazterrak garbitzea izanen da bolondresen lanetako bat.

gurugiroan nahiz gizartean. Planak hiru ekin-tza eredu azpimarratzen ditu bolondres lanaren barrenean.

- Ingurugiroko bolondresen sareak: edozein pertsonak ingurugiroa zaintzeko jarduerak egitea ahalbidetzen dute.

- Ingurugiroko bolondres lanari buruzko proiektuak: aitzinetik eratuta dagoen talde baten ekimenak dira. Erakunde honek, jardueraren diseinuan, haren etengabeko garapenean eta haren ebaluaketan parte hartzen du.

- Ingurugiroko bo-

londres lanerako eremuak: ekintza zehatz eta ongi definituek osatutako programak, hiru eta hogeita egun bitarteko iraupena dutenak. Programa horietan jatorri desberdineko bolondresen talde batek parte hartzen du.

Planak hiru atal nagusitan banatzen ditu ingurugiroko bolondres lanaren esparruak.

- Naturguneak eta bizi aniztasunaren zainketa. Atal honetan sartzen dira Naturgune Babestuenak, fauna eta flora-aren zainketa eta basoen defentsa.

- Hiriak eta ingurugiro kalitateak: berdeguen zainketa, isurketen zainketa, ibai ertz-zen garbiketa eta sentibilizazio kanpainetan kolaboratzea.

- Herriak eta naturaren erabilpen publikoa: erabiltzen ez den ondarea berreskuratu eta ondare historio-artistikoa mantentzea; bidaxken seinalizazioa eta mantentzea; aterpe eta atsedenekuen garbiketa eta hobetzea...



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

A G E N T Z I A

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

ARGIBEL OPTIKA

☎ 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO



Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

EZKONTZAK

Francisco Antonio Del Valle de Lersundi de Valle eta **Eva Benko**, Donostia eta Errumaniakoa, Goizuetan, otsailaren 18an.

JAIOTZAK

Olaia Mitxeo Migeltorena, Gaztelukoa, otsailaren 6an.

Jaione Bertiz Agirre, Berakoa, otsailaren 9an.

Beñat Etxezarreta Rezola, Aresokoa, otsailaren 2an.

Aitor Artola Alduntzin, Aresokoa, otsailaren 13an.

Emma Iribarren, Sarakoa, otsailaren 14an.

Enaitz Telletxea Sein, Igantzikoa, otsailaren 17an.

Jokin Mitxeo Etxeberria, Igantzikoa, otsailaren 18an.

HERIOTZAK

Pilar Arozena Loiarte, Goizuetakoa, otsailaren 14an, 42 urte.

Teodoro Ondikol Grajirena, Erratzukoa, otsailaren 28an, 62 urte.

Maria Karrikiri Garate, Oronozkoa, otsailaren 29an, 78 urte.

Jose Luis Senper Etxeberria, Berakoa, urtarrilaren 11n, 58 urte.

Maria Aranzazu Telletxea Sansiñena, Berakoa, urtarrilaren 23an, 45 urte.

Marcos Oiartzabal Lujanbio, Berakoa, otsailaren 23an, 68 urte.

Pedro Goienetxe Violet, Berakoa, otsailaren 16an, 66 urte.

Estebam Altzugarai Etxebeste, Berakoa, otsailaren 20an, 66 urte.

Francisco Etxegarai Gainza, Berakoa, otsailaren 18an, 75 urte.

Ignacio Aizagirre Zestau, Aresokoa, otsailaren 10ean, 82 urte.

Isabel Mugerza Labaien, Aresokoa, otsailaren 22an, 72 urte.

Natalia Sanzberro Elizalde, Etxalarakoa, otsailaren 18an, 74 urte.

Benito Indaburu Sanzberro, Etxalarakoa, otsailaren 22an, 81 urte.

Marie Françoise Etxegarai, Sarakoa, otsailaren 8an, 91 urte.

Ginette Gaudet, Sarakoa, otsailaren 27an, 68 urte.

Ramon Iguzkiagirre Irigoien, Igantzikoa, otsailaren 19an, 85 urte.

Jose Miguel Zubiri Mitxelena, Igan-

**ESKELAK eta URTEMUGA OROIGARRIAK
TTIPI-TTAPA TELEBISTA eta ALDIZKARIAN**

 **948 63 11 88**



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



**Maria
KARRIKIRI GARATE**

Zu joan zara
bainan zure oroimena
gurekin geldituko da.

DEL MORAL-ARIZTEGI FAMILIA

Elizondon, 2000ko Otsailaren 29an

Nafarroako Bertsolari txapelketa ortziral honetan abiatuko da Tafallan

Hiru finalerdien ondotik, finala Goizuetan burutuko da apirilaren 16an

A.A.

Ortziral honetan, martxoak 10, arratseko 9etatik aitzinera Tafallako Zokondo Elkartean egingen den kanporaketa saioarekin hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Aurtengoan berrikuntza aunitz izanen ditu txapelketak. Alde batetik, partehartzaileen kopurua haunditu da, 26 bertsolari taularatuko baitira. Horietako aunitz, gainera, aurpegi berriak izanen dira. Bertzalde, lehiaketa-sistema ere berezi xamarra izanen da. Hiru kanporaketa saio egingen dira eta gero, bertze hiru finalerdi. Joan den urtean Lesakako finalean aritu ziren zortzi bertsolariek (Bittor Elizagoien, Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Juan Mari Lopez, Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez, Joxema Leitza eta Xabier Legarreta) segurtatua dute finalerdirako sailkapena. Finala, berriz, Goizuetan burutuko da apirilaren 16an.

TAFALLA, ERRATZU ETA BETELUN LEHEN KANPORAKETAK

Erran bezala, ortziral honetan egingen da lehen kanporaketa saioa Tafallan. Bertan izanen dira Ekintza Landa, Alaitz Rekondo, Sustrai Kolina, Manolo Arozena, Julen Zelaieta eta Iñigo Ibarra. Bigarren kanporaketa Erratzuko Etxelebertzeko Txoan izanen da martxo-



Azkeneko urteotan gure inguruan burutu da Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala. 1998an Elizondon egin zen -argazkian-, joan den urtean Lesakan eta aurten Goizuetan egingen da.

Artxibokoa

ren 17an, ortzirala, arratseko 9etatik aitzinera. Jean Louis Harinordoki «Laka», Fermin Mihura, Amets Arzallus, Mikel Altzuart, Ek-hine Etxepeteleku eta Txomin Ezponda ariko dira. Martxoaren 18an, larunbata, hirugarren eta azken kanporaketa saioa egingen da Beteluko Zigarri elkartean, arratseko 9etatik aitzinera. Oskar Estanga, Jon Arregi «Zubialde», Aritz Sarragueta, Nerea Bruño, Joxe Juan Zubietta «Etxabe» eta Xabier Terreros ariko dira bertso kantari. Lehen kanporaketa hauetan honako lan hau egin beharko dute: Zortziko handian hiruna bertso, zortziko ttikian hiruna bertso, oi-na edozein puntutan sar-

tzeko, bukaera hamarreko ttikian eta kartzelan bi bertso. Ez da errea egon finalerdirako txartela, saio bakoitzeko lehendabizikoa bakarrik pasatuko baita zuzenean. Gero, puntuaziorik onena lortu duten zazpi bertsolariak sartuko dira.

BIDARRAI, BERA ETA ATARRABIAN FINALERDIAK

Lehen saioetatik datozen hamar bertsolarioriek iazko finalistak izanen dituzte esperoan finalerdietan. Hiru finalerdi egingen dira, bakoitzean seina bertsolarirekin. Hemen ere saio bakoitzeko onena igaroko da finalera eta beraiekin, bortz puntuaziorik onenak lortu

dituzten bertsolariak.

Lehen finalerdia Bidarraien jokatu da, martxoaren 26an, arratsaldeko 4,30etan. Bigarrena Berako Kultur Etxean izanen da, apirilaren 2ko arratsaldeko 5etan. Azken finalerdia Atarrabian izanen da, apirilaren 9an arratsaldeko 4,30etatik aitzinera. Finalerdian egin beharreko lana hau da: zortziko handian eta ttikian hiruna bertso, bi puntu eta hitza gai bezala, Iparragirreraren doinuan hiruna bertso eta kartzelan bi bertso.

FINALA GOIZUETAKO PILOTAPLAZAN APILAREN 16AN

Kanporaketa eta finalerdien ondotik gelditzen den zortzikoteak

apirilaren 16an, arratsaldeko 4,30etan izanen du finaleko hitzordua Goizuetan. Finallean ere lan ezberdina egin beharko dute bertsolariek: Zortziko handian hiruna bertso, zortziko ttikian hiruna bertso, bi puntu, «Aizak hi mutil mainontzi» doinuan hiruna bertso, Kartzelan bukaera hamarreko ttikian eta gai bati bi bertso.

Azpitarratzekoa da gure ingurutik hainbat bertsolari ariko direla txapelketan. Bortzirietako Bertso Eskolatik hameka ordezkari ariko dira, hamar lesakar eta beratar bat. Baztandarrak bi izanen dira eta aranoar batek ere parte hartuko du.



560 kilotan Euskal Herriko eta Munduko txapelketa irabazi zuen zortzikotea: Karmelo Mitxelena, Joxe Angel Mitxelena, Oskar Telletxea, Beñardo Iantzi, Alejo Sarobe, Iñaki Igoa, Igor Telletxea eta Paxkual Taberna, Aguxtin Zubieta entrenatzailea eta Josu Irigoien prestatzaile fisikoarekin batera.

Nafarroa, Euskal Herria eta Munduan nagusitu dira lesakarrak

- Beti Gazteko sokatira taldeak bere denboraldirik onena egin du
- Munduko txapelketatik urrezko bi domina ekarri zituen

Nafarroa eta Euskal Herriko txapelketetan jokoan zeuden launa txapeletatik hiruna jantzi ondotik, Munduko txapelketan ere sasoi batean azaldu da Lesakako Beti Gazte elkartearen sokatira taldea. Holandara joan aitzineko asteburuan, 560 eta 640 kiloko Euskal Herriko txapelak jantzi zituen, Lesakan eta Arronizen egindako finaletan.

Slagharen herrian jokatutako ziren Munduko txapelketak, lehendabiziko egunetan klub artekoa eta ondoren nazioartekoa. Lesakarrak, Euskal Herriko txapelketan egindako lanaren ondotik, moralez gai-

nezka joan ziren eta ez zituzten azken ordurako utzi nahi dominak. Lehen egunetan, otsailaren 24an, urrezko jantzi zuten 600 kiloko kategorian. Azpimarratzekoa da hiru dominak Euskal Herria ekarri zituztela, Beti Gazteren ondotik Abadiño eta Torrekolanda sailkatu baitziren. Ingalaterrako Nolton taldea izan zen laugarren. Bitxikeria gisara, aipatu behar da 600 kiloko izan zela Beti Gazteko Euskal Herria irabazi ez zuen txapel bakarra, Abadiño nazioartekoa. Lesakarrak, Euskal Herriko txapelketan egindako lanaren ondotik, moralez gai-

Otsailaren 25ean, 560 kiloko finala nafa-

rra izan zen Holandan: Beti Gazte eta Areso lehiatu ziren eta hemen ere lesakarrak golkoratu zuten urrea. Euskal Herrikoan bezala, Aresorentzat izan zen zilarra.

Nazioartekoan bertze bi domina lesakarrekin

Klub artekoan nagusi izan ondotik, nazioarteko txapelketaren txanda izan zen. Euskal Herria ordezkatuz bertze bi domina ekarri zituen Lesakako taldeak. 640 kiloko txapelketan, bertze taldeetako tiralari batzuk sartu ziren zortzikotean eta hirugarren postua lortu zu-

ten, beraz, brontzeko domina. Finalerdian, gero txapeldun suertatu zen Eskoziaren kontra galdu zuten eta hirugarren eta laugarren posturako lehia Ingalaterrari irabazi zioten. Zilarrezko domina Irlandarentzat izan zen.

560 kilotan Beti Gazteko tiralariak osatutako zortzikotea atera zen goma gainera. Finalerdietara ailegatzeko ez zuten arazorik izan eta finalerdietan Eskoziaren penperatu zuten: lehen tiraldia bi minutu pasatxotan eraman zuten eta bigarrena minutu terdian. Finalean, ordea, Ingalaterraren kontra galdu egin zuten (lehen

Ez da errexa izaneren aurtengo emaitzak berriz errepikatzea



Agustin ZUBIETA

Nafarroan hiru txapel,

Euskal Herrian bertze hiru eta Munduko txapelketan bi urrezko domina. Beti Gazte sokatira taldeak inoiz izan duen emaitzarik onena izan da aurtengoa, dudarik gabe. Berriz ere hori errepikatzea ez da batere errexa izaneren. Holandan, lehendabiziko bi egunetan urrezko bi domina lortu genituen klub arteko txapelketan eta haseran genituen helburuak bete genituen. Tiraldi bakar batek ere galdu gabe irabazi genituen bi tituluak. Ingelesek nazioarteko txapelketarako indarrak gorde zituztela iruditu zitzaizdan. Nazioarteko txapelketan prestatuagoak atera ziren taldeak. 640 eta 680 kilotan bertze taldeetako tiralariak sartu genituen. 560 kilotan txapela jantzi nahi genuen, denboraldia borobiltzeko, baina Ingalaterrak ongi irabazi zigun finalean. Zilarrekin konforme gara.

tiraldia ia bi minututan eraman zuen Ingalaterrak eta bigarrena minutu eta erdian) eta honenbertze, zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuten. Eskoziarentzat izan zen brontzeko domina eta Ipar Irlanda izan zen laugarren.

680 kilokoan, azkenik, Beti Gazteko zuten Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea baina selekzio bat ateri zen. Aitzinetik espero bezala, ez zuten dominarik lortu eta bosgarren postuan akautu zuten. Ingalaterrak, Irlandak eta Eskoziak osatu zuten podiuma. Herbehereak izan zen laugarren. ●

Doneztebarrek irabazi dute lehendabiziko Paxaka txapelketa

- Arraztoa-Etxeberria-Mariñelarenak irabazi zuten finala Iruritan
- Oizko Ariztegi anaiak eta Fagoaga lau jokutan utzi zituzten

Doneztebeko Tiburcio Arraztoa, Patxi Etxeberria eta Javier Mariñelarenak osatutako hirukoteak irabazi zuen Laxoa Elkarateak lehen aldiz antolatutako paxaka txapelketaren finala. Azken partida Iruritan jokatu zen otsailaren 27an eta doneztebarrek Oizko Jexux Mari eta Aitor Ariztegi anaiak eta Sergio Fagoaga izan zuten aitzinean. Lehendabiziko jokuak oiztarrek egin bazuten ere, doneztebarrek buelta eman zioten markagailuari (4-1, 5-3, 7-4) eta azkenean 9 eta 4 irabazi zuten. Hala ere, azken emaitzak erakusten duena baino borroka gehiago egin behar izan zuen Doneztebeko hirukoak lehen txapela janzteko.

Final haundiaren aitzinetik, hirugarren eta laugarren posturako



Doneztebeko Arraztoa, Etxeberria eta Mariñelarena txapelkunak, Oizko Fagoaga eta Ariztegi anaiekin.

Foto Zaldua

norgehiagoka jokatu zen. Txapelketa hasi zenean, txapela janzteko faboritoak ziren Patxi Ganboa, Luismi Apeztegia eta Pello Iribarr

ren doneztebarrek aritu ziren alde batean eta Txuma Prim, Agustín Mitxelena eta Mikel Ballarena baztandarrak bertzean. Doneztekoek

9 eta 4 irabazi zuten.

Antolatzaileak gus-tora agertu dira. «Helburu nagusia aspaldiko pilota joku hau gure pilota plazetan berri-

ikustea zen eta zortzi hirukote osatzea lortu du-gu. Arrakasta ikusita, heldu den urtean talde gehiago izanen gara, duikabe». ●



❖ Berako XXVII. esku pilota txapelketa

Gure Txokoa elkar-teak 27. aldiz anto-latutako Berako pi-lota txapelketa hasi zen otsailaren 24an. Benjamin, alebin eta infantil mailako 30 bat bikote ari dira es-kuz. Jubenil maila-ko pilotariak txapelketa aunitan sar-tuak daudenez, has-tekotan beranduago hasiko dira. Helduen paleta goma txapelketarik ez da aurten jokatu. Luis Mari Retegi antolatzaileak adierazi duenez, «azken urteetan nahiko fundameto gutti zegoen paleta txapelketan eta ez egitea erabaki du-gu. Ea hurrengora-ko ernatzen garen».

Baztan-Bidasoako futbito txapelketaren finala igandean jokatu da Donezteben

- Doneztebeko Titi Ostatuak Elizondoko Saskarrak taldea izanen du arerio
- Sunbillako Fonda Ostatuak Ruben Etxart izan da jokalaria eta golegile onena

Baztan-Bidasoako futbito txapelketaren final nagusia igande honetan, martxoak 12, arratsaldeko 6etatik aitzinera jokatu da Doneztebeko eskolako pilotalekuan. Aitzineko bi urteetan bezala, Doneztebeko Titi Ostatuak izanen da finalistetako bat eta txapela irabaz-

teko faborito nagusia. Elizondoko Saskarrak taldea izanen du arerio finalean. Bi taldeek nahiko errex irabazi zituzten beraien finalerdia. Titik 6 eta 3 irabazi zion Hamabi Ostatuari eta Saskarrak taldeak ustekabea eman zuen, ordura arte partidu bakar bat ere galdu

ez zuen Sunbillako Fonda Ostatuari 7 eta 3 argi batekin nagusitu baitzitzaion. Beraz, finala baino lehen, arratsaldeko 5etan hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu dute Fonda eta Hamabi ostatuak.

Txapelketa irabazi duen taldearen ize-

na jakitea faltan, bertze sari batzuk badute ja-berik dagoeneko. Honela, golegile onenari emandako saria Fonda Ostatuak Ruben Etxartek jaso du, 21 gol sartu ondotik. Titi Ostatuak Javalerak eta Felipe Ganboak hamahiruna gol sartu dituzte. Erregulartasunaren saria ere

Etxart berak irabazi du. Atezain onenari ematen zaion Zamora Saria Txokoto Ostatuak Franzesenak eraman du. Kiroltasunaren saria Fonda Ostatuak eraman du, 38 falta bertzerik ez baititu egin. Titi Ostatuak 40 egin ditu, Hamabi ostatuak 63 eta Saskarrak taldeak 66. ●

AGENDA EGUNEZ EGUN

SOLASALDIAK

LESAKA

► **Martxoaren 14an** Mercedes Lezaunek Ikasteko ohiturei buruz emanen du hitzaldia. Arratsaldeko 6etan Udaletxean. Antolatzailea: Toki Ona ikastetxea.

ERAKUSKETAK

BERA

► **Martxoaren 6tik 12ra** Emakumearen astea. Eskulan erakusketa Kultur Etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara.

ZINEMA

LEITZA

► **Martxoaren 10-11n** "Un marido ideal"
► **Martxoaren 17-18an** "Solás"

BILTZARRAK

IRUÑEA

► **Martxoaren 8tik 13ra** "Nafarroako Gazte Kontseiluak" antolaturik, gazte asoziazionismoaren astea. Informazio gehiagorako, Xauli informazio bulegoa: 948 581 458.

LEHIAKETAK

ATARRABIA

► **Apirilaren 20a arte** Pedro de Atarrabia XII. Kondagintza Lehia-keta, 17 urtetik goitiko-entzatzat. 100.000 ptako saria. Antolatzailea: Beti Onak kirol elkar-tea. Informazioa, Xauli informazio bulegoa: 948 581 458.

ANTZERKIA

LESAKA

► **Martxoaren 18an** "Trizikloa" antzezlan, Mairu antzerki taileraren eskutik. Ikus Lesako berriak.

TELEBISTAKO TXOKOA



AURKEZLE BERRIA
Joseba Olagarai
Etvalariko Herri zinearen gidari berria izanen du Joseba. Orain arte Iratik egiten zuen lana egiten du etvalartar gazte honek, eta bere herriko hainbat kontu ekarriko dizkigu artzilar ilunarekin.

MARTXOAREN 8tik 10ra

ASTEAZKENA ORTZEGUNA ORTZIRALA

11:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
13:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
17:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Irñauteriak (errep.)

MARTXOAK 12 eta 13an: HAUTESKUNDEEI BURUZKO PROGRAMAK

MARTXOAK 12, igandea
Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskunde orokorren egunak emanen dituen gertakizun guziki lehen eskutik ekarriko dizkizu TTPI-TTAPA TELEBISTAK. Protagonista nagusien irizkiak, interpretazioak, eta nola ez, gure herrietan izan diren emaitza guziki izanen dituzue hauteskunde egunean bertan.

MARTXOAK 13, astelehena
Hauteskunde egunaren biharamunean ere gai hori izanen da nagusi arratseko albistegian. Behin betiko emaitzak, herri-herrikoak nahiz orokorrak jakiteko modua izanen dizue, baita hauek ekarriko dituzten ondorioak ere.



MARTXOAREN 13tik 17ra

ASTELEHENA ASTEARTEA ASTEAZKENA ORTZEGUNA ORTZIRALA

11:00	Hauteskundeak	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
			Jokoa Solas (errep.)		
13:00	Hauteskundeak	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
			Jokoa Solas (errep.)		Zuzenean (errep.)
17:00	Hauteskundeak	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	Berriak <i>Hauteskundeen behin betiko emaitzak</i>	Jokoa Solas		Zuzenean	Herri-herri <i>Lescka, Igantzi eta Exalar</i>

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.900 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 163 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 85 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra570
1.koa540
2.koa520
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra580
1.koa550
2.koa530
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 45.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Euri kontuak»
Jose Luis OTAMENDI
SUSA

Hau da Jose Luis Otamendi azpeitiarraren lehen narrazio liburu, orain arte argitaratutako guziaz poesia izan baita. Dena den, pauso ttikia dago berak idazten zituen poematik liburu honetan irakur daitezkeen 20 ipuin edo istorio motzetara. Istorioetan agertzen diren pertsonaiak herri ttiketako biztanleak dira, gehienak Azpeitia ingurukoak. Idazleak herrietako giroa maixuki irudikatzen du bere liburuaren orrietan, eta eguneroko gertaera xumeei erreparatu osatu du kontakizuna. Literaturaren historian hainbat aldiz landu diren arren inoiz agortuko ez diren gaiak hartu ditu Otamendik: maitasuna, adiskidetasuna, sexua, heriotza... Beti ere umore finez leunduak ageri zaizkigu istorioak, baina kasu, ipuin bakoitzaren bukaran kolpe bat hartuko baitu irakurleak.

Mareen energia elektrizitate-iturri

Mareen energiatik energia elektrikoa lortzeko teknologia aspaldi asmatu zen, baina errentabilitate eta ingurugiro arazoak zirela eta, ez du sekulan aurrera egin. Azken urteotan, ordea, teknologia-aren aurreratzeak ingurugiroa ez kaltetzeko sistemak garatzeko aukera ekarri du.

ESTUARIOETAKO ZENTRALAK

Duela gutxi arte marea-energia erabiltzeko lekurik hautatuenak estuarioak izan dira, horietan ur-bolumen handia iragaiten baita toki estu batetik, eta, ondorioz, abiadura handiko ur-lasterrak sortzen dira. Estuarioaren sarrean presa bat eraiki eta itsasgora hasten denean sarbidea itxi egiten da. Beraz, presaren itsasoko aldean uraren maila igo egiten da beste aldekoarekiko. Itsasgoraren azken bi orduetan presa ireki eta itsasoko ura estuariorantz abiatzen da turbinetan barrena, energia elektrikoa sortuz. Itsasgora goren uanean dagoenean atakak itxi egiten dira berriro eta ura estuarioan metatuta kontzen da itsasoan marea behe-



Gaur egun ingurugiroa ahal bezainbat zaintzeko moduan saiatzen dira mareen energiei etekina ateratzen.

ra doan bitartean. Itsasbeheraren amaieran atakak ireki eta ura estuariorantz itsasorantz isurtzen da, turbinak mugitu eta orduan ere energia sortuz. Estuario-zentralek ingurugiro-arazo larriak sortzen dituztenez, baztertu egin dira.

ZENTRALAK ITSASOAN

Ingurugiro-arazoak saihesteko beste sistema bat garatu da: itsas azpian barruti harrerituak egitea, urmaelak. Marea goian dagoela urmaela urez bete eta ura hor gelditzen da marea jaisten denean. Marea behean dagoela urmaeleko ura eta itsasoko ura ez daude maila berean eta, atakak irekita, urmaeleko ura



itsasora isurtzen da turbinetan barrena. Hortxe sortzen da energia elektrikoa. Hustu ondoren, urmaeleko ura eta itsasoko ura maila berean daude. Orduan urmaelerako sarbidea itxi eta marea igotzen denean berriro ere maila desberdinetan egongo dira itsasoko ura eta urmaeleko ura. Balbulak ireki eta itsasoko urak urmaela beteko du turbinetan barrena, eta energia elektrikoa sortuko da. Orduan zikloa berriro hasten da.

ELHUYAR ZIENTZILARI
ELKARTEA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

BERA

► **Martxoak 10** "Jouisilouli", Lezotik. Arratseko 10etan Pui ostatuan.

► **Martxoak 24** Ibon Salaberria, Lezotik. Arratseko 10etan Pui ostatuan.

OIARTZUN

► Martxoaren 10an

"Doktor Deslai" eta "Xuia". Arratseko 11-etan. Pagoan.

► **Martxoak 11** "Potato", "Trepí eta Arawak". Paga garagar dotegian.

► **Martxoak 17** "Fermin Muguruza Sound System" eta "Selektah kolektiboa". Arratseko 11etan Pagoan.

ELIZONDO

► Martxoak 17

"Grammophone mande". Arratseko 10etan Kasino ostatuan.

ANTZERKIA

DONEZTEBE

► Martxoak 11

"Arraultza delikatua" antzezlan, Ika Antzerki Taldearena, Kaxerna ostatuan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tf.ora. deitu behar da

► Martxoaren 6tik

12ra Lesaka, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Goizueta.

► Martxoaren 13tik

19ra Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Martxoaren 20tik

26ra Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

DISKAK



«Ikaro»

JUAN CARLOS PEREZ

ELKARLANEAN

Juan Carlos Perez mutrikuarra Itoiz talde mitikoaren sortzaile eta abeslari bezala ezagun egin zen denbora luzean. Talde hura desagertu zenean, 90. hamarkada guzian zehar musikaren bide desberdinak ikeru eta konbinatzen aritu da, bakarlarri bezala hasi baino lehen. Bakarka ateratzen duen 5. lana da hau, hoietak hiru Elkarlanean disketxearekin eta baina Esan Ozenki eta NO-CD

Records-ekin.

Ikaro, Maskarada antzerki taldeak antzeztutako obra baten izena da. Bere garaian, Juan Carlosi eman zioten obrari musika jartzeko enkargua, eta orduko haren garapena da eskuarte dugun disko hau. Bere ondoan hainbat kolaboratzaile izan ditu Perezek, bertzeak bertze, Maixa, Ixiar eta Garbiñe, Fernan Irazoki beratarrak, eta, batez ere, Fran Iturbe.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Giltzak maiatzean emanen dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Garaje handia. ☎ 948 514 213.

LESAKA. Pisua salgai Al-bistur 59.ean. Dena berri-tua. ☎ 948 637 369.

LEITZA. Etxe berria salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bi komuna. Garaje handia eta lorategia. ☎ 649 476 615.

HONDARRIBIA. 100 m²ko pisua salgai. Alde zahar-rean, berri-tua eta ikuspegi ederrekin. ☎ 610 239 409.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, baje-rak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

Bera eta Sunbilla artean baserri tiki bat erosi edo errentan hartuko nuke, edo borda bat berritzeko. Lur pixko bat izan dezala. ☎ 943 642 530 (goiz eta arratse-tan) edo 610 239 409.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Pisu mobleztatua emanen nuke errentan. ☎ 948 630 270.

BERA. Pisu mobleztatua emanen nuke errentan Ager-ra auzoan. ☎ 948 631 305 (arratsaldetan).

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisua edo lokalen bat bilatzen dut bizitzeko eta ingles klaseak emateko. ☎ 948 630 467.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Agerrako Sara karrikan 117 m²ko bajera errentan emateko. ☎ 948 630 785 (gauetz).

SARA. 800 m²ko gordeleku errentan emateko. Nahi diren m² alokatzen ahal dira: 400 pta m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

ADOS

IRURITA.

- Lur eremu eraikigarria salgai.

☎ 948 451 841
607 978 656

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

LANA

301 ESKARIAK

Klase partikularrak emanen nituzke Leitza edo Are-so inguruan. OHoko 4., 5. eta 6.a eta DBHko 1. mailan. ☎ 948 510 383.

Ingles klaseak emanen nituzke Beran. Irakasle jatorriz eskoziarra. ☎ 948 630 410 (5etatik 7etara).

LANA

302 ESKAINTZAK

Ibardingo benta batean urte osoan lan egiteko neska bat behar dugu. ☎ 948 630 734.

Saltzailea behar dugu nekazaritzako makineria enpresa batendako. ☎ 948 580 258.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Opel Kadett 1.6 gasolina salgai. SS-AK. Egoera onean. ☎ 948 630 003.

Peugeot 205 salgai. NA-Y. 250.000 pta. ☎ 948 451 886.

Opel Astra GSI salgai. Extrak, suspentsioa, llantak. ☎ 619 159 507 (Juan Luis).



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

☎ (+34) 948 631188

Nissan Patrol luzea salgai. SS-AL. Egoera onean. ☎ 948 631 131.

Suzuki Katana motoa salgai. Berri-berria dago, hagitx guti erabilia. ☎ 948 627 554.

Suzuki DR 350 beltza salgai. 99koa, 300 km. ☎ 948 450 082.

Rieju First motoa salgai, 49koa. ☎ 948 630 052.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

© 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Terrano D, C-15 D, Express D eta gasolina, Corsa D, Astra 1.4i, R-19 D.

ABERIA TRIANGELUAK SALGAI

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • © 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

17 ardiren **deretxoak** salgai. ☎ 948 451 886.

Artzain-zakur alemana behar dut baserria zaintzeko. ☎ 948 630 188.

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

© 948631362 • Legia 13 • BERA



Nafarroako armarria duen

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

giltzaria harrapatu dugu Beran, giltza bakarra du. ☎ 948 631 188.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

8-12 urteko umearendako **bizikleta** arroxka salgai. Bertze bizikleta bat 5-6 urteko umearentzat. Oso ongi dau-de biek. ☎ 948 610 783.

Atabala salgai. Egoera onean. ☎ 948 451 913.

Txapazko **berogailuak** salgai. Merkeak. Prezio negoziagarria. ☎ 630 135 101.

Gasna egiteko tresnak eta **ardi esnea** erosi nahi ditut. ☎ 948 630 410 edo 609 663 107.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Maitane Gereñori muxu haundi bat, zorionak eta besarkada bat, otsailaren 8an urteak egin dituelako. Familiaren partetik.

Ainara Saralegiri zorionak, bere lehendabiziko urtebetetzea, otsailaren 14an. Zorionak zure familia osorearen partetik.

Ttipi-ttapako **Karmele**: inauterietan ez zaitez gaztez moztarrotu. Adina adi-na da. Aunitz urtez.

KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa.: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

- Irudi korporatiboa** ▼ **Publizitatea prentsan**
- Logotipoak** ▼ **irratian eta**
- Foiletoak** ▼ **telebistan.**
- Aldizkariak** ▼ **Publizitate**
- Katalogoak** ▼ **kanpainen**
- Diseinua** ▼ **antolaketa**



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera **35 Ptako 15 seilu** igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Koldo Erkizia lesakarrak martxoaren 1ean urteak beteko ditu. Egun ona pasa! Zure fansak (zure ekipoarenak, ez flipatu).



Ekhone Larraide beratarrari zorionak otsailaren 25ean urteak bete dituzulako. Egun ona pasa. Etxalar eta Lesakako zure lagunak.



Zorionak Goixuetako bi **mariatxieri**, tekila pare batekin zelebratuko dugu laster.



Jaione Inda Zarranz doneztebarrak martxoaren 6an 6 urte bete ditu. Zorionak aita, ama, Julen eta familia osoaren partetik.



Irupe eta Itsaso Elizagoien Bizente excalartarrak 7 eta 5 urte beteko dituzte martxoaren 29 eta apirilaren 4an. Zorionak eta aunitz urtez atxa eta amaren partetik.



Irene Zelaieta beratarrak martxoaren 6an eginen ditu 16 urte. Zorionak eta muxu bat zure familia guziaren partetik. Ongi pasa eguna.



Sunbillako **Ane Petrirenak** 3 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak eta musu handi bat familia guziaren partetik. Abudo eskolara!!



Donamariako **Beñat Lazkano Etxalar** otsailaren 5ean eguzien urte bat. Zorionak familiaren partetik.



Mikel Larretxea doneztebarrak 2 urte bete ditu martxoaren 3an. Zorionak Arantzako familiaren partetik. Segi orain bezain bitxo!



Concepción Ubiria elgorriarrak martxoaren 5ean bete ditu urteak. Zorionak eta muxu bat Lesakako familiaren partetik.



Edurne Otxandorena elgorriarrak martxoaren 17an beteko ditu urteak. Zorionak eta muxu bat Lesakako familiaren partetik.



Maider Etxandi Almandoz lesakarrak otsailaren 25ean 10 urte beteko ditu. Zorionak atxa, ama eta Nekanereren partetik.



Jon Macicior eta Paola Oscoz lesakarrak martxoaren 24 eta 28an 5 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak Joxe eta Anaren partetik. Aupa eroskillos!



Juan Macicior lesakarrak 66 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak familiaren partetik.



Angel Mari Telletxea Bakero beratarrak 15 urte beteko ditu martxoaren 7an. Zorionak bere guraso, ataxi eta amaxirenen partetik.



Oihana Mitxelena Legazkue sunbillarrak 8 urte beteko ditu martxoaren 14an. Aunitz urtez familiaren partetik. Egun ona pasa!



Amaia Tapia lesakarrak 23 urte bete ditu martxoaren 4an. Zorionak eta 23 muxu handi. Orain onddua utzi eta bandejak mugitzera... ja, ja, ja.



Tere Altzugarai eta Amaia Tapia lesakarrak urteak bete dituzte martxoaren 4 eta 22an. Zorionak familia guziaren partetik, eta bereziki Maddalenen partetik. Muxu handi bat, eta ez ahaztu txanpaina eta pastelak.



Maddi Ugalde eta Ane Eitzaurdia beratarrak martxoaren 18 eta 19an beteko dituzte 4 eta 5 urte. Zorionak artistak!



Paqui Ramirez martxoaren 7an bete ditu urteak. Zorionak familia guziaren partetik. Muxu handi bat Nagorenen partetik.



Berriozarko **Oier eta Xuban Kañamaresek** 4 eta urte bat beteko dituzte martxoaren 15ean. Zorionak Ugaizten partetik.



Jon Irazoki Ezeiza elizondarrak 8 urte beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak eta musu bat aita, ama eta lñakiren partetik.



Amaia eta Olatz legasarrak urteak beteko dute martxoaren 2an. Zorionak eta muxu bat aita eta amaren partetik.



Amaia Lukanbio Larretxea arantzarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez etxearen partetik.



Donamariako **Izaskun Goñiri** zorionak martxoaren 13an 11 urte beteko dituelako. Zorionak familiaren partetik, bereziki lñigoren partetik.



Donostiako **Oihane Etxarrik** martxoaren 21ean 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat Ane, Maddi eta ataxi eta amaxirenen partetik.



Xabier Mayor-domo Almandoz beratarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 19an. Muxu handi bat aita, ama eta familia guziaren partetik.



Aitor Arozana lesakarrak martxoaren 16an urteak beteko ditu. Zure zain gaude sagardotegian ospatzeko.



Etxalarko **Ixari**: zorionak zure ?garren urtebetetzean, eta ea ospatzen dugun erabaki genuen erara. "Las chicas Racing".



Lesakako **Rakeli**: zorionak zure 24. urtebetetzean, eta lasai, urteak denontzat joaten direla berdin. "Las chicas Racing".



KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia



A

rmairu enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA

LOGELAK, EGONGELAK, TRESILLOAK,
KUTXAK, BESAUJKIAK...



GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

Gure kirolarekin bat



*Zorionak
Beti Gazte!*

beti zuekin

GANI

ZUEN
KUTXA

Kanape tolesgarria
eta 135eko koltxoia:

80.100 pta

Koltxoi azala opari



Kajoidun kanapea
eta 135eko koltxoia:

96.300 pta

Koltxoi azala opari



**MUEBLES
& METS**

Sarrera BERatik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA

Tfnoa.: 948 630 537

Faxa: 948 631 443

**4.000 m²ko
erakusketa
mobleak ikusteko**

Larunbat arratsaldetan irekia

